Orkestra zuzendaritza ibilbidea Ingalaterran garatu du nagusiki, eta beste batzuen artean honakoak zuzendu izan ditu: Manchester Camerata, Liverpool Mozart Orchestra, Derbyshire Youth Orchestra, Nottingham Youth Orchestra, baita Leeds College of Music-eko banda eta orkestra, bertako zuzendaritzako irakaslea delarik. Azken lau denboraldietan eta gaur egun bitarte, Solihull Symphony Orchestrako zuzendari titularra izan da. Askotan Bilbao Orkestra Sinfonikoa zuzendu izan du. Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Malagako Filarmonikoa, Extremadurako Sinfonikoa eta Nafarroako Sinfonikoa Iruñeko orfeoiarekin batera zuzendu izan ditu. 2017tik Jon Malaxetxebarria EIO – Euskadiko Ikasleen Orkestrako zuzendari titularra da.

Berriki edo berehala gauzatuko dituen ekimenen artean Arriagako denboraldirako Calixto Bieitoren Arriagaren ahots ekoizpena dago, eta Zenarruzako Musika Jaialdi Sakrora itzulera.

Tras completar sus estudios de trompa en Chicago con Dale Clevenger, en el año 2010 Jon se traslada a Manchester para realizar el Master de Dirección de Orquesta en el Royal Northern College of Music. Al concluir el Master gana el premio Mortimer Furber y obtiene la plaza de profesor en la JuniorRNCM, donde sigue ejerciendo.

Desarrolla la dirección de orquesta principalmente en Inglaterra dirigiendo a la Manchester Camerata, Liverpool Mozart Orchestra, Derbyshire Youth Orchestra Nottingham Youth Orchestra, así como la banda y orquesta de Leeds College of Music, de donde es profesor de dirección. Actualmente Jon Malaxetxebarria es director titular de la Solihull Symphony Orchestra, a la que dirige desde hace cuatro temporadas. Ha dirigido en varias ocasiones a la Orquesta Sinfónica de Bilbao. También ha dirigido a las Orquestas Sinfónica de Euskadi, Filarmónica de Málaga, Sinfónica de Extremadura y a la Sinfónica de Navarra junto al Orfeón Pamplonés. Desde el año 2017 Jon Malaxetxebarria es director titular de la EIO, Orquesta del Alumnado de Euskadi.

Entre sus recientes y próximos proyectos se encuentran la producción de la obra vocal de Arriaga por Calixto Bieito en la temporada del Arriaga, y el retorno al Festival de Música Sacra de Zenarruza.

MALAXETXEBARRIA

# ANDRA MARI ABESBATZA



José Luis Ansorenak 1966an sortua, bere sorkuntzaren urrezko ezteiak berriki ospatu ditu. Ansorena bera izan zen koruaren zuzendari 1966tik 1994an jubilatu zen arte; orduan José Manuel Tifek hartu zion txanda eta bertako zuzendari izan zen 2015 arte. Gaur egun Andoni Sierra da Andra Mari Abesbatzaren zuzendari artistikoa.
Estatuko agertoki garrantzitsuenetan eman ditu emanaldiak. Europako hainbat herrialdetan (Austria, Belgika, Frantzia, Italia eta Suitza) eta Argentinan birak eskaini ditu.
Besteak beste, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin, Bilbokoarekin, Espainiako Nazionalarekin, Tenerifekoarekin, Galiziakoarekin, Scottish Chamber Orchestrarekin, Buenos Aireseko Filarmonikarekin, XVIII. mendeko orkestrarekin, Cadaquéseko Orkestrarekin, Akitaniako Bordeleko Nazionalarekin, Mahler Chamber Orchestrarekin edo Frankfurteko Irratiko Orkestra Sinfonikoarekin aritu da elkarlanean, eta zuzendari izan ditu Fr. Brüggen, E. García Asensio, O. Alonso, A. Boreyko, A. Orozco-Estrada, R. King, Ph. Pickett, J. López Cobos, C. Rizzi, A. Ros Marbá, J. Mena, V. Pablo Pérez, M. Honeck, Ph. Herreweghe edo P. Goodwin beste askoren artean.

Hemeretzi disko grabatu ditu, koru musikan genero guztiekin, operak eta zartzuelak barne, euskal musikan espezializatua badago ere. José Luis Ansorenaren eskutik 1973an Errenterian geroztik urtero egiten den Musikaste jaialdia sortu zuen. 1974an, berriz, Eresbil - Musikaren Euskal Artxiboa sortu zuen.

Fundada en 1966 por José Luis Ansorena, Andra Mari Abesbatza ha celebrado recientemente sus bodas de oro fundacionales. Desde 1966 hasta 1994 fue dirigida por el propio José Luis Ansorena; en 1994, y tras su jubilación, José Manuel Tife toma el relevo como director de esta agrupación hasta el año 2015. En la actualidad Andoni Sierra ocupa la responsabilidad de la dirección artística de esta entidad.
Ha actuado en los principales escenarios y festivales musicales del Estado, ofreciendo conciertos en varios países europeos, como Austria, Bélgica, Francia, Italia y Suiza, así como en Argentina.
Ha colaborado con las orquestas sinfónicas de Euskadi, Bilbao, Tenerife, Galicia, Madrid, Nacional de España, Scottish Chamber Orchestra, Filarmónica de Buenos Aires, Orquesta del siglo XVIII, Orquesta de Cadaqués, Nacional de Burdeos Aquitania, Mahler Chamber Orchestra o la Orquesta Sinfónica de la Radio de Frankfurt, con directores como Fr. Brüggen, E. García Asensio, O. Alonso, A. Boreyko, A. Orozco-Estrada, R. King, Ph. Pickett, J. López Cobos, C. Rizzi, A. Ros Marbá, J. Mena, V. Pablo Pérez, M. Honeck, Ph. Herreweghe o P. Goodwin.
Ha realizado, y grabado diecinueve discos, cultivando todo género de música coral, incluidas óperas y zarzuelas, aunque su especialidad es la música vasca. La inquietud de su fundador José Luis Ansorena la llevó a crear en 1973 el festival Musikaste, así como ERESBIL-Archivo Vasco de la Música en el año 1974.

ANDRA MARI
ABESBATZA

• Alonso, Irati • Ansorena, Jose Ignazio • Arregi, Juan Jose • Arregi, Marijose • Arriaga, Emiliano •
• Arriola, Juan Ambrosio • Astiazaran, Jagoba • Aulestia, Gotzon • Azurmendi, Idoia • Cadario, Alessandro •
• Chacón, Emma • Dufourcet, M.-Bernadette • Elustiza, Juan Bautista •
• Farkas, Ferenc • Garate, Roberto • Garbizu, Tomás • Gimenez, Karlos •
• Gochicoa, Romualdo • Gonzalez, Iker • Gorosarri, Eduardo • Guelbenzu, Juan María • Guerrero, Junkal •
• Gwynn, Alejandro • Hakim, Naji • Iturregui, Mikel • Jiménez, Juan Andrés • Keelan, Andrew • Larragañaga, Fr. José •
• Lazkano, Ramon • Lombide, Juan Andrés • Mazarredo, Mª Antonia • Menéndez, José • Merah, Joël •
• Ojinaga, Joaquín • Olaizola, Ignacia • Otaolea, Xabier • Preciado, Dionisio • Preciado, José •
• Ravel, Maurice • Santiago, Rodrigo • Sarasate, Pablo • Sarasola, Xabier • Senperena, Jose Ramon •
• Suárez, Raúl • Turrilas, Manuel • Ugalde, Eva • Urrutia, Isabel • Velázquez, Fernando • Vírseda, Paloma •



# MUSIKAGILEAK

## *Compositores*

## ALONSO, Irati

ALONSO, Irati

Irati Alonso Armintzan (Bizkaia) jaio zen 1998an. Pianoko gradu profesionala Leioako udal kontserbatorioan egin zuen; bertan ikasi zituen Harmonia, Analisia eta Konposizio Oinarriak ere Iratxe Sáez Hormaechearekin eta Margarita Lorenzo de Reizábalekin. Aurten Musikeneko konposizioko graduko hirugarren ikasturtea egiten dihardu, Gabriel Erkoreka, Zuriñe Fernández Gerenabarrena, Ramon Lazkano eta Stefano Scarani irakasleekin.

Irati Alonso nace en 1998 en Armintza, localidad de Bizkaia. Ha realizado los estudios de Grado Profesional de piano en el Conservatorio Municipal de Leioa, donde estudió las asignaturas de Armonía, Análisis y Fundamentos de Composición con Iratxe Sáez Hormaechea y Margarita Lorenzo de Reizábal. Actualmente cursa el tercer año del Grado Superior de Composición en Musikene, bajo la docencia de Gabriel Erkoreka, Zuriñe Fernández Gerenabarrena, Ramon Lazkano y Stefano Scarani.

## ANSORENA, Jose Ignazio

ANSORENA, Jose Ignazio

Euskal musikarekiko tradizio luzea zuen familia baten baitan jaio zen. Bere aitona  Isidro Ansorenaren txistu ikasle izan zen. Donostiako Kontserbatorioan ikasi zuen, bertako txistuko katedradun eta zuzendari izan delarik. Filosofia eta Letretan lizentziatua da.
Kulturako  hainbat eremutan garatu izan du bere sorkuntza jarduera. Idazlea eta poeta da. Musika tradizioaren ikertzaile gisa, *Euskal Kantak* kantutegia argitaratu du. Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazo hirukotearen sortzailea da. Telebistako dinamizatzaile eta ekoizlea da. Lehen txistu katedraren sustatzailea izan zen; txisturako mailakako metodoa sortu du eta Donostiako Udal Txistu Bandaren buru instrumentista aipagarria da. Konpositore moduan, hainbat moldaketa eta obra sortu ditu, txisturako nagusiki.

Nace en San Sebastián en 1953, en el seno de una familia con tradicional dedicación a la música vasca. Fue alumno de txistu de su abuelo Isidro Ansorena. Estudió en el Conservatorio de música de Donostia del que ha llegado a ser catedrático de txistu y director. Es también licenciado en Filosofía y Letras.
Ha desarrollado su labor creativa en varios campos de la cultura. Es escritor y poeta. Investigador de la tradición musical, ha editado el *Cancionero Popular Vasco*. Es fundador del trío de payasos Txirri, Mirri eta Txiribiton. Dinamizador y productor televisivo. Promotor de la primera cátedra de txistu, es autor de un método progresivo para el instrumento y destacado instrumentista al frente de la Banda Municipal de Txistularis de San Sebastián. Como compositor ha escrito numerosos arreglos y composiciones propias, principalmente para txistu.

## ARREGI, Juan Jose

Donostian jaio zen 1932an. San Vicente parrokiakoa zen eta bere haurtzaroko musika erreferenteak Gelasio Aranburu koruko zuzendaria eta Luis Urteaga organista izan ziren. Vitoria-Gasteizen egin zituen apaiz-ikasketak eta musika Julio Valdésekin ikasi zuen. Pianoa Luis Arambururekin ikasi zuen. Gregorianoko zenbait ikastaro egin zituen Montserrateko monasterioan. Beranduago Donostiako Seminarioan jarraitu zituen ikasketak eta 1955ean apaiztu zen. Bere ekintza pastorala Hernaniko San Juan Bataiatzailearen parrokian garatu izan du lehen eta  destino bakarra izanik, eta irakasle gisa lanean aritzeaz gain koruko zuzendaria ere izan zen. Liturgiarako eta erlijio-ospakizunetarako obra ugari idatzi zituen, eta horietako batzuk, bere ordenazioaren berrogeita hamargarren urtemuga zela eta, *Eliz kantuak* izeneko bolumenean jaso ziren.

Nace en San Sebastián en 1932. Perteneciente a la parroquia de San Vicente, tuvo dos referentes musicales en su niñez, Gelasio Aranburu, director de coro, y Luis Urteaga, organista. Realizó estudios sacerdotales en el Seminario de Vitoria-Gasteiz, recibiendo la formación musical de la mano de Julio Valdés. Estudió asimismo piano con Luis Aramburu. Asistió a cursos de gregoriano en el monasterio de Montserrat. Posteriormente continúa sus estudios en el Seminario de San Sebastián, donde se ordenó sacerdote el año 1955. Ha desarrollado su labor pastoral en la parroquia de San Juan Bautista de la localidad guipuzcoana de Hernani, como primer y único destino, donde ha ejercido además como profesor y también como director de coro. Es autor de numerosas obras escritas para la liturgia y celebraciones religiosas, recopilada parte de las mismas en el volumen *Eliz Kantuak* publicado en 2005 con ocasión del cincuentenario de su ordenación sacerdotal.

## ARREGI, Marijose

Marijose Arregi Etxeberria Azkoitian jaio zen 1957an. Musika ikasketak Donostia eta Bartzelonako kontserbatorioetan egin zituen. Mikel Bikondoarekin hasi zen akordeoia ikasten eta sari asko irabazi zituen nazional zein nazioarte mailan (Frantzia, Belgika, Holanda, Alemania…). Francisco Escuderorekin harmonia, konposizioa eta instrumentazioa ikasi zituen, eta pianoa Cristina Navajasekin. Musika pedagogia eta musikologia ikasketak 1987-88 ikasturtean amaitu zituen. Profesional mailan, Azkoitiko *Bizkargi* musika eskolan harmonia eta akordeoi irakasle bezala aritu izan zen, eta bertako zuzendaria ere izan zen.

Marijose Arregi Etxeberria nace en Azkoitia en 1957. Realiza estudios musicales en los conservatorios de Donostia y Barcelona. Se inició en el acordeón con Mikel Bikondoa, consiguiendo premios nacionales e internacionales (Francia, Bélgica, Holanda, Alemania…). Estudió armonía, composición e instrumentación con Francisco Escudero y piano con Cristina Navajas. Terminó los estudios de pedagogía musical y musicología en el curso 1987-88. Su desarrollo profesional está vinculado a la escuela de música *Bizkargi* de Azkoitia, de la que ha sido profesora de armonía y acordeón así como directora.

ARRIAGA, Emiliano

## ARRIAGA, Emiliano

Bilbon jaio zen 1844an. Juan Crisóstomo de Arriagaren iloba txikia zen eta bere obra berreskuratzearen alde lan handia egin zuen. Biolin ikasketak egin zituen eta Bilboko Elkarte Filarmonikoko eta Euskal Zentroko lehendakaria izan zen. Idazlea ere izan zen, eta *El cuarteto* edo *Teoría del violín* lanak argitaratzeaz gain Bilboko ohiturei buruzko liburuak ere argitaratu zituen.
Konposizioari dagokionean, harizko laukoterako eta bandarako obrak idatzi zituen, baita *Lekobide* opera ere. Zuazon (Araba) zendu zen 1919an.

Nace en Bilbao en 1844. Era sobrino-nieto del compositor Juan Crisóstomo de Arriaga, siendo uno de los impulsores de la recuperación de su obra. Músico formado en el violín, desempeñó diversos cargos en su ciudad natal, como la presidencia de la Sociedad Filarmónica de Bilbao o el Centro Vasco. Como escritor es autor de trabajos como *El cuarteto* o *Teoría del violín*, además de libros sobre costumbres populares de Bilbao.
Como compositor es autor de obras para piano, para cuarteto de cuerda, para banda, así como de la ópera *Lekobide*. Fallece en Zuazo, Álava, en 1919.

ARRIOLA, Juan Ambrosio

## ARRIOLA, Juan Ambrosio

Juan Ambrosio de Arriola y Jaúregui, Elorrion (Bizkaia) jaio zen 1833ko abenduan. Lehen musika ikasketak Arantzazuko komentuko Pedro Lucas de Bengoa fraide frantziskotarraren eskutik jaso zituen. 1854an Madrilgo Kontserbatorio Errealera joan zen ikasketak hobetzera, eta Hilarión Eslavaren ikasle izan zen. Elorriora itzultzean organista bezala ezarri zen. Organista trebea zen eta Murtziako katedraleko organoa ere inauguratu zuen. Batzar Nagusien babesarekin Parisen denboraldi motz bat eman zuen, eta gaixoaldi baten ondorioz Elorriora itzuli behar izan zuen. 1863ko apirilaren 8an, hogeita bederatzi urterekin, bere jaioterrian zendu zen.
Konpositore bezala ahots-musika erlijioso lanak idatzi zituen; Bizkaiko Batzar Nagusien Bizkaiko Jaurerria zela eta 1860ean *Misa solemne* idatzi zuen. Organo bakarlarirako eta pianorako obrak ere idatzi zituen. *El firmante* izeneko zarzuela bat idatzi zuen. Letrak Ricardo de Zamacois-enak ziren eta Madrilgo Jovellanos antzokian estreinatu zen.
Berak idatzitako organorako zenbait obra Bonifacio Eslavaren argitaletxean argitaratu ziren oraindik ere bizirik zegoela. Resurrección Mª de Azkueren *Euskaltzale* aldizkarian Arriolaren zortziko batzuk argitaratu ziren. Bilboko Lazcano y Mar argitaletxeak 1909an bere obra batzuk argitaratu zituen eta baita Corazón de María argitaletxeak ere 1930ean.

Juan Ambrosio de Arriola y Jáuregui nació en Elorrio, Bizkaia, en diciembre de 1833. Recibió sus primeras enseñanzas musicales con el fraile franciscano Pedro Lucas de Bengoa, exclaustrado del convento de Arantzazu. En 1854 se traslada a Madrid para perfeccionar su aprendizaje en el Real Conservatorio, siendo alumno de Hilarión Eslava. De vuelta a Elorrio, se estableció como organista. Ejerció con destreza su profesión, llegando a inaugurar el nuevo órgano de la catedral de Murcia. Realizó también una corta estancia en París, pensionado por las Juntas Generales, teniendo que volver por enfermedad a Elorrio. Fallece en su localidad natal el 8 de abril del año 1863, a la temprana edad de veintinueve años.
Como compositor es autor de música vocal religiosa, destacando una *Misa solemne* compuesta en 1860 con motivo de las Juntas Generales del Señorío de Bizkaia, así como de obras para órgano solo, obras para piano y una zarzuela titulada El *firmante*, con letra de Ricardo de Zamacois, estrenada en Madrid en el Teatro Jovellanos.
Algunas de sus obras para órgano fueron editadas en vida por la editorial de Bonifacio Eslava. Resurrección Mª de Azkue editó algunos zortzikos de Arriola en su revista *Euskaltzale.* También fueron editadas algunas de sus obras por la editorial bilbaina Lazcano y Mar, en 1909, así como por la editorial Corazón de María en 1930.

ASTIAZARAN, Jagoba

## ASTIAZARAN, Jagoba

Zestoan jaioa, 1986an. Goi mailako musika ikasketak amaitu ditu Musikenen, Musika tradizionaleko instrumentuak (Txistu) espezialitatean (2008) eta Konposizio espezialitatean (2015). Musika Ikasketa profesionalak berriz Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorioan Piano eta Txistu espezialitatetan. 2008tik Donostiako Udaleko Txistulari bandako partaide da, baita Musika eta Dantza Eskolako irakasle ere. Euskadiko Orkestrarekin txistu bakarreko aritu zen 2009-2010 abonu denboraldian, eta besteak beste Xare, Ciklus edo KEtan taldeekin aritu da interprete moduan.

Musikagile gisa hainbat sari irabazi ditu: Durango Hiria konposizio lehiaketan 3.

Saria (2007 eta 2011ean), Ikerketa Musikalari eskaintzen zaion Donostiako Orfeoia/EHU saria (2012), Donostia 2013, Bigarren mendeurreneko musika lana lehiaketako lehen saria (2013). Gainera, Feeding Music-Nutrire La Música Nazioarteko Konposizio Lehiaketan finalista aukeratua izan zen, 2015ean Milanen ospatu zen EXPO2015ean parte hartuz.

Bere sortze-lanak hainbat taldek interpretatu dituzte, hala nola, Bilboko Orkestra Sinfonikoak, Ensemble Sillages-ek, Sentieri Selvaggi-k, Kuraiak eta Xarek.

Nace en Zestoa en 1986. Termina los estudios superiores de música en Musikene en las especialidades “Instrumentos de la Música Tradicional y Popular / Txistu” (2008) y Composición (2015), y obtiene el título profesional de Música en el Conservatorio Francisco Escudero de San Sebastián en las especialidades de Txistu y Piano. Desde 2008 es miembro de la Banda Municipal de Txistularis de San Sebastián y profesor de la Escuela Municipal de Música y Danza. Ha participado como solista junto a la Orquesta de Euskadi en la temporada de abono 2009-2010, y como intérprete ha actuado, entre otros, con ensembles como Xare, Ciklus o KEtan.

Ha obtenido varios premios de Composición e Investigación. Tercer Premio del Concurso de Composición Ciudad de Durango (2007 y 2011), Premio Orfeón Donostiarra/UPV a la investigación Musical (2012), Primer premio en el Concurso Donostia 2013, obra del bicentenario. Además ha sido elegido finalista en el Concurso Internacional de Composición Feeding Music-Nutrire la Musica, participando en la EXPO2015 de Milán. Sus obras han sido interpretadas por agrupaciones como la Orquesta Sinfónica de Bilbao, Ensemble Sillages, Sentieri Selvaggi, Ensemble Kuraia o Xare Laborategia.

AULESTIA, Gotzon

## AULESTIA, Gotzon

1940. urtean jaio zen Ondarroan. Haurtzaroan hasi zituen musika ikasketak. 1963an Donostiako Kontserbatorioan Cabanasekin pianoa ikasi zuen eta Escudero maisuarekin egin zituen konposizio eta harmoniako ikasketak. 1964an karrera amaierako lehen saria lortu zuen harmonian eta 1966an fugan. Aurrerago ikasketak Parisen sakondu zituen Olivier Messiaen maisuarekin. 1968an Madrilera joan zen eta Aita Recoletosetako organista izan zen, Gerardo Gombau-rekin dodekafonismoa eta musika seriala ikasten zituen bitartean. Donostiara bueltatzean, Artzai Onaren Katedraleko organista izateaz gain, Kontserbatorioko harmonia eta konposizio irakasle izan zen. Musika erlijiosoa sortzeaz gain, lan didaktikoak, edota korurako, ganberarako edo orkestrarako obrak idatzi zituen.

2003ko martxoaren 14an Donostian zendu zen.

Nace en Ondarroa en 1940. Desde niño inició los estudios musicales, que en 1963 completó en el Conservatorio de San Sebastián, estudiando piano con Cabanas y armonía y composición con el maestro Escudero. En 1964 fue Primer premio fin de carrera en armonía y en 1966 igualmente en fuga. Amplió y perfeccionó sus estudios en París con Olivier Messiaen.

En 1968 se trasladó a Madrid, donde ejerció de organista de los PP. Recoletos, a la vez que cursó estudios sobre dodecafonismo y música serial con Gerardo Gombau. Regresa a San Sebastián, donde ha sido organista de la Santa Iglesia Catedral y profesor de armonía y composición del Conservatorio.

Como compositor ha desarrollado su trabajo centrándose sobre todo en los géneros religioso-coral y sinfónico.

Fallece en San Sebastián el 14 de marzo de 2003.

## AZURMENDI, Idoia

AZURMENDI, Idoia

1971n Azpeitian jaioa. Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioan egin zituen bere ikasketak. Hezkuntza Musikala, Koru Zuzendaritza, Musika Pedagogia, Musikologia eta Konposaketan goi tituluduna. Abesbatzen munduari lotua, hainbat abesbatzetako partaide, Antxieta Gazteak, Amalda Abesbatza, Gipuzkoako Gazte Abesbatza, Kanta Cantemus Korua, esaterako. Gaur egun Aqua Lauda abesbatzan abesten du.

2008. urtean Biarritzen egiten den Kanta Berri lehiaketan saritua izan zen *Dorre Mendi* obrarekin. 2014an Tolosako Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan *Esperantzari leiho bat* obra behartua izan zen.

Nace en Azpeitia en 1971. Realizó sus estudios en el Conservatorio Superior de Música de San Sebastián. Es titulada superior en Educación Musical, Dirección de Coro, Pedagogía Musical, Musicología y Composición. Vinculada al ámbito coral ha particiado en los conjuntos Antxieta Gazteak, Amalda Abesbatza, Gipuzkoako Gazte Abesbatza y Kanta Cantemus Korua. Hoy en día es cantora de Aqua Lauda.

Fue premiada el año 2008 en el concurso Kanta Berri celebrado en Biarritz con la obra *Dorre Mendi*. Su obra *Esperantzari leiho bat* fue obligada el año 2014 en el Certamen Internacional de Masas Corales de Tolosa.

## CADARIO, Alessandro

CADARIO, Alessandro

Milango Giuseppe Verdi kontserbatorioan Orkestra Zuzendaritza ikasketak amaitu ostean, Sienako Accademia Musicale Chigianan ikasten jarraitu zuen eta sari garrantzitsuak irabazi zituen. Era berean, biolinean, koru zuzendaritzan eta konposizioan diplomaduna da.

2015etik aurrera onespen handia lortu zuen Italian, eta urte hartan Milango alla Scala antzokian debutatu zuen. Italiko orkestra garrantzitsuenak zuzentzeaz gain Mariinsky orkestra eta Hong Kong-eko City Chamber Orchestra ere zuzendu zituen, ospe handiko bakarlariekin.

Musika garaikidearekin konprometitua, Ivan Fedele-ren gisako autoreen lanak estreinatu izan ditu (*From depth to deepness* Carlo Felice antzokian, Genova 2018). Konpositore bezala egindako lanak New York-eko Lincoln Centerren, Staatstheater Darmstadt-en edo Taipei National Concert Hall-en estreinatuak izan dira.

Gaur egun, Milango orkestra sinfoniko zaharrenetakoa den *I Pomeriggi Musicali-ko* Zuzendari Gonbidatu Nagusi kargua betetzen du.

Tras completar sus estudios de dirección orquestal en el Conservatorio Giuseppe Verdi en Milán, ha estudiado en la Accademia Musicale Chigiana en Siena, con las principales distinciones. Es asimismo diplomado en violín, dirección coral y composición.

Desde el año 2015 ha logrado el mayor reconocimiento público en Italia, habiendo debutado dicho año en el Teatro alla Scala en Milán. Ha dirigido las principales orquestas italianas, así como la orquesta Mariinsky o la City Chamber Orchestra de Hong Kong, colaborando asimismo con destacados solistas.

Comprometido con la música contemporánea, ha realizado estrenos de autores como Ivan Fedele (*From depth to deepness* en el Teatro Carlo Felice, Génova, en 2018). Como compositor sus obras han sido estrenadas en auditorios con el Lincoln Center de Nueva York, en el Staatstheater Darmstadt o en el Taipei National Concert Hall, por nombrar algunos.

Actualmente ocupa el cargo de Principal Director Invitado de *I Pomeriggi Musicali*, una de las más antiguas orquestas sinfónicas italianas, radicada en Milán.

CHACÓN, Emma

## CHACÓN, Emma

Bartzelonan jaio zen, 1886an. Musika ikasketak bere jaioterrian egin zituen. Pianoa jotzen hobetzeko ikasketak Enrique Granadosekin egin zituen, eta harmonia, kontrapuntu, fuga eta konposiziokoak José Rivera Miró-rekin. Piano-jotzaile moduan gazte hasi zen. 1912az geroztik musika jarduera Bilbon jorratu zuen, konpositore moduan bereziki. Piano, ahots eta piano, ganbera eta musika erlijiosorako obra asko egin zituen, baita *La Jaula de oro* 3 ekitaldiko opereta ere. “*Impulso”* argitaletxearen izenarekin kaleratu zituen bere auto-ekoizpenak. Bilbon hil zen, 1972an.

Nace en Barcelona en 1886. Realizó estudios musicales en su ciudad natal, siendo discípula de Enrique Granados en perfeccionamiento del piano y de José Rivera Miró en armonía, contrapunto, fuga y composición. Desarrolló una temprana carrera como pianista. A partir de 1912 desarrolla su actividad musical en Bilbao, especialmente como compositora.

Es autora de un buen número de obras para piano, canto y piano, música de cámara, música religiosa, así como de la opereta en tres actos *La Jaula de oro.* Publicó sus obras como autoediciones bajo el nombre de ediciones “*Impulso”*. Fallece en Bilbao en 1972.

DUFOURCET, M.-Bernadette

## DUFOURCET, Marie-Bernadette

Baionan jaio zen (Frantzia), pintura, poesia eta musikarako zaletasun handia zuen familia batean. Musika ikasi zuen eta organoan espezializatu zen. Hauek izan dira bere irakasleetako batzuk: S. Landale, M-Cl. Alain, J. Langlais eta R. Falcinelli. Pariseko CNSMn eta Londreseko Trinity College of Music-en ikasi zuen.

Rennes, St. Albans edo Beauvais edo Chartres-eko nazioarteko organo lehiaketetan sariak jaso zituen eta Pariseko Notre-Dame-des-Champs elizako Cavaillé-Coll organoko ohorezko titularra izan zen. Interprete gisa ibilbide oparoa izan zuen eta horren adierazgarri dira grabatu zituen hamar diskoak.

Sorbonak doktore izendatu zuen, eta 1992az geroztik Bordeaux-Montaigne-ko unibertsitateko irakaslea da, eta Bordele/Akitaniako goi-mailako musika eta dantza zentroko irakaslea ere bai. Madrilgo Unibertsitate Autonomoak irakasle bezala gonbidatu izan du. Ikerketa asko egin ditu eta, ondorioz, artikulu ugari argitaratu ditu; hainbat ikerketa taldetan parte hartzeaz gain, zuzendu ere zuzendu ditu.

Konposizioari dagokionean, organorako lanak egin ditu.

Nace en Bayona, Francia, en el seno de una familia franco-española de pintores, poetas y músicos. Su formación musical se especializa en el órgano, habiendo estudiado con S. Landale, M-Cl. Alain y J. Langlais, así como con R. Falcinelli en el CNSM de Paris, y en el Trinity College of Music de Londres. Ha sido galardonada con premios en los concursos internacionales de órgano de Rennes, St. Albans, Beauvais o Chartres, siendo titular honoraria del órgano Cavaillé-Coll de la iglesia Notre-Dame-des-Champs de París. Desarrolla una intensa actividad como intérprete, como lo avala su participación en diez discos.

Es Doctora por la Sorbona, ejerciendo la docencia en la Universidad de Bordeaux-Montaigne desde 1992, así como en el Pôle d’Enseignement Supérieur de Musique et Danse-Bordeaux/Aquitaine, y ha sido profesora invitada en la Universidad Autónoma de Madrid. Fruto de sus investigaciones, ha publicado un importante número de artículos y participado y dirigido diversos grupos de investigación.

Como compositora su obra creativa se centra en la música para órgano.

ELUSTIZA, Juan Bautista

## ELUSTIZA, Juan Bautista

Bergaran (Gipuzkoa) jaio zen 1885ean. Palentziako seminarioan sartu zen eta eliz ikasketak egiteaz gain, harmonia eta organoa ikasi zituen, Aita Otaño irakasle izan zuelarik. 1908an Palentziako katedraleko Kapera Maisu plaza lortu zuen oposizioz eta 1912an Sevillako katedraleko organista plaza. Organista eta inprobisatzaile abila izanik, zazpi urteko lan ibilbidean musikagile, ikertzaile eta kazetari gisa ere aritu izan zen. Sevillako Ateneoko Musika Saileko kide izan zen. 1933an hil ondoko liburu bat argitaratu zen Bartzelonan, Gonzalo Castrilloren laguntzarekin, *Antología musical: siglo de oro de la música litúrgica de España, polifonía vocal, siglos XV y XVI*. idatzi zuena. Konpositore bezala musika erlijiosoa idatzi zuen batez ere, ahotsa akonpainamenduarekin, batik bat. 1919an Sevillan zendu zen.

Nace en Bergara, Gipuzkoa, en 1885. Ingresó en el Seminario de Palencia, donde junto a los estudios eclesiásticos se formó en armonía y órgano, siendo discípulo del P. Otaño. En 1908 logra por oposición la plaza de Maestro de Capilla de la catedral de Palencia y en 1912 la plaza de la organistía de la catedral de Sevilla. Desarrolló su labor a lo largo de siete años, no solo como organista y hábil improvisador, sino como compositor, investigador y periodista. Fue miembro de la Sección de Música del Ateneo sevillano. En 1933 se publicó en Barcelona de forma póstuma su trabajo *Antología musical: siglo de oro de la música litúrgica de España, polifonía vocal, siglos XV y XVI*, realizado en colaboración con Gonzalo Castrillo.

Como compositor es autor de música religiosa, para voces con acompañamiento.

Fallece en Sevilla el año 1919.

FARKAS, Ferenc

## FARKAS, Ferenc

1905eko abenduaren 15ean Nagykanizsan (Hungaria) jaio zen. Piano-karrera hasi ondoren, konposizioa ikasi zuen Weiner eta Siklós maisuekin Budapest-eko Musika Akademian eta geroago Respighi-rekin Erroman. 1933tik 1935era bitartean Viena eta Copenhague-n bizi izan zen zinemarako musika sortuz. Konposizioko irakaslea izan zen Budapest-eko Udal Eskolan eta Kolozsvár-eko Kontserbatorioan eta baita azken honetako zuzendaria ere 1943an. Era berean, Székesfehérvár-eko musika eskola zuzentzeaz gainera Budapest-eko Musika Akademian konposizioa irakasten aritu zen eta Ligeti, Kurtág eta beste hainbaten irakaslea izan zen. Ondoko sari hauek irabazi ditu: Liszt Saria (1933), Franz Joseph Saria (1934), Kossuth Saria (1950) eta Erkel Saria (1960).

Operak, operetak, balletak, musika pastorala eta txotxongiloentzako musika, musikalak, eta oratorioak idatzi ditu. Era berean, musika-lan instrumentalak, ahotsetarako eta orkestrarako musika-lan ugari sortu ditu, batzuk erlijiosoak eta besteak profanoak.

Nace el 15 de diciembre de 1905 en Nagykanizsa, Hungría. Después de comenzar su carrera como pianista, estudió composición con Weiner y Siklós en la Academia de Música de Budapest y más adelante con Respighi en Roma. Entre 1933 y 1935 vivió como compositor de música de cine en Viena y Copenhague. Enseñó composición en la Escuela municipal de Budapest y en el Conservatorio de Kolozsvár donde fue director en 1943. Dirigió asimismo la Escuela de música de Székesfehérvár y fue profesor de composición en la Acamedia de Música de Budapest, donde entre otros enseñó a Ligeti y Kurtág. Fue galardonado con el Premio Liszt (1933), Premio Franz Joseph (1934), Premio Kossuth (1950) y Premio Erkel (1960). Fallece en Budapest el año 2000.

Sus composiciones incluyen óperas y operetas, ballets, música pastoral y marionetas, así como musicales y oratorios. Ha compuesto además numerosas obras instrumentales, vocales y orquestales, tanto de música religiosa como profana.

## GARATE, Roberto

Amasan, (Villabona, Gipuzkoa) jaio zen 1919an. Txistua bere aitonarekin, José Elola txistularia, ikasten hasi zen, danborrarekin laguntzen. Txistu ikasketak Villabonako Francisco Lascurain txistulariarekin jarraitu zituen. Gerrate Zibilaren ostean, familiako jatetxean lan egiteaz gain, saxofoiz, akordeoiz eta perkusioz osatutako *"Los tres R"* taldean parte hartu zuen. Berak bateria jotzen zuen eta txistua ere tartekatzen zuen. Nota azkarrak jotzeko abilezia berezia zuenez *txistulari elektrikoa* goitizenaz ezaguna zen, eta hainbat jai eta ospakizun girotu zituen.
Musikagile bezala, txisturako pieza birtuosoak idatzi zituen.
Amasan zendu zen 2014an.

Nace en Amasa, Villabona, Gipuzkoa, en 1919. Se inicia en la música a través de su abuelo José Elola, txistulari a quien le acompañaba con el tambor, continuándolos con Francisco Lascurain, txistulari de Villabona. Tras la guerra civil compaginó las tareas en el restaurante familiar con la creación de un conjunto musical, denominado *"Los tres R",* de saxofón, acordeón y percusión, donde tocaba la batería acompañándose en ocasiones con el txistu. Dotado de especial habilidad para ejecución de notas rápidas, adquirió el sobrenombre de *txistulari eléctrico,* alegrando centenares de fiestas y celebraciones.
Como compositor es autor de un breve conjunto de piezas virtuosísticas para txistu.
Fallece en Amasa el año 2014.

## GARBIZU, Tomás

Lezon jaio zen, 1901eko irailaren 12an. Umea zelarik herriko elizako abesbatzan parte hartu zuen. Pianoa jotzen ikasi zuen bere anaia José apaizarekin. Arantzazuko Apaizgaitegian ikasi zuen urte batzuetan eta horrek aztarna sakona utzi zion. Donostiako Kontserbatorioan, José Mª Iraolarekin pianoa eta Beltrán Pagolarekin harmonia ikasi zituen. Ikasketak sakontzera Madrilgo Kontserbatoriora jo zuen eta, gero, Parisa, Charles Leboutekin.
Frantziak Madrilen duen Enbaxadako organista ofiziala izan zen.
1954 ezkero, Donostiako Kontserbatorioko organo Katedradun izan zen, erretiro garaira arte, ikasle adituak bultzatu eta lagunduz.
Tomás Garbizu jotzaile baino musikagile da. Horregatik, era guztietako lanak utzi dizkigu: erlijio musika ugari, euskal musika korala, txistua, lied-a, pianoa, organoa, ganbera-musika, oratorioak, zarzuelak, etab. 2018 ezkero ERESBILek gordetzen du bere musika artxiboa eta biblioteka. Donostian hil zen, 1989ko azaroaren 27an.

Nació en Lezo el 12 de septiembre de 1901. Fue niño de coro en su parroquia iniciándose en el piano con su hermano José, sacerdote. Varios años en el Seminario de Aránzazu dejaron una gran huella en el corazón de Tomás Garbizu. En el Conservatorio de San Sebastián estudió piano con José Mª Iraola y armonía con Beltrán Pagola, ampliando estudios de órgano en el Conservatorio de Madrid y, más tarde, en París con Charles Lebout.
Fue organista oficial en la Embajada Francesa en Madrid. Desde 1954 desempeñó la cátedra de órgano en el Conservatorio de San Sebastián, hasta su jubilación, promocionando importantes discípulos.
Tomás Garbizu ha legado como compositor abundante música religiosa, música coral, para txistu, lied, piano, órgano, música sinfónica concertante, música de cámara, oratorios, zarzuela... Desde el año 2018 ERESBIL conserva su archivo y biblioteca musical. Falleció en San Sebastián el 27 de noviembre de 1989.

## GIMENEZ, Karlos

GIMENEZ, Karlos

Jatorriz argentinarra den musikagilea egun Gipuzkoan bizi da. 1976an ekin zion musika ibilbide profesionalari eta pianista, musikagile, moldatzaile, ekoizle artistiko eta musika zuzendari lanetan aritu izan da. Proiektu askotan parte hartu izan du, kantautore ugari interpretazioan lagunduz. Beste batzuen artean aipagarriak dira: Imanol, Xabier Lete, José Antonio Labordeta, Pier-Paul Berzaitz, Antton Valverde, Julen Lekuona, Erramun Martikorena, baita Oskorri taldea ere.
*Klabelin Komik* kolektiboko kide izan zen eta 1990 eta 1993 bitartean *21 Japonesas* taldeko teklista izan zen. Poeta askoren olerkiak musikatu ditu, adibidez: Lizardi, San Juan de la Cruz, Alfonsina Storni, Xabier Lete, Gabriel Aresti, Pier-Paul Berzaitz, Etxahun-Iruri, Etxahun-Barkoxe edo Itxaro Borda. Hamaika musika moldaketa egiteaz gain, antzerki, zinema eta telebistarako musika ere konposatu du: Gabriel Celayaren *El Relevo*, Montxo Armendárizen *27 ordu.*

Compositor de origen argentino afincado en Gipuzkoa. Su trayectoria profesional se inicia en 1976 como pianista, compositor, arreglista, productor artístico y director musical. Ha participado en numerosos proyectos acompañando como intérprete a cantautores como Imanol, Xabier Lete, José Antonio Labordeta, Pier-Paul Berzaitz, Antton Valverde, Julen Lekuona, Erramun Martikorena, así como el grupo Oskorri, entre otros. Formó parte del colectivo *Klabelin Komik* y entre 1990 y 1993 participó en el grupo *21 Japonesas* como teclista. Ha musicado poemas de poetas como Lizardi, San Juan de la Cruz, Alfonsina Storni, Xabier Lete, Gabriel Aresti, Pier-Paul Berzaitz, Etxahun-Iruri, Etxahun-Barkoxe o Itxaro Borda. Además de realizar innumerables arreglos musicales, ha compuesto música para teatro, cine y televisión (*El Relevo* de Gabriel Celaya, *27 Horas* de Montxo Armendáriz…).

## GOCHICOA, Romualdo

GOCHICOA, Romualdo

Legution, Araba, jaio zen 1853an. 1876an Vitoria-Gasteizko danbolin deialdira aurkeztu zen, eta bigarren gelditu zen. 1881ean Irungo lehen danbolin plaza eskuratu zuen, eta txistulari bikain izatearen ospea irabazi zuen. Azterketetan ahots frogak egin zituztenez, Junkaleko Andre Mariaren Parrokiko kaperako bigarren tenore ere izendatu zuten. 1899an Donostian egin zen lehiaketa batean Bilboko Euskeria Orfeoian errefortzu gisa parte hartu zuen.
Danbolin lehiaketa ezberdinetan sariak irabazi zituen. 1881etik 1913ra Irungo Musika Akademiako irakasle izan zen. Konposizioari dagokionean txistu talderako zortzikoak, baltsak, kontradantzak eta habanerak idatzi zituen.
Legution zendu zen 1919an.

Nace en Legutiano, Álava, en 1853. Tras presentarse el año 1876 a la convocatoria de tamborilero en la ciudad de Vitoria-Gasteiz y quedar en segunda posición, en 1881 logra la plaza de primer Tamborilero de la villa de Irún, labrándose una fama de excelente txistulari. Las pruebas sirvieron también para examinar la voz, de manera que fue nombrado asimismo segundo tenor de la capilla de la parroquia de Santa María del Juncal. Más adelante participó como refuerzo del Orfeón Euskeria de Bilbao en un certamen celebrado en Donostia el año 1899.
Obtuvo diversos premios en concursos de tamborileros. Fue asimismo profesor de solfeo en la Academia Municipal de Música de Irún desde 1881 hasta el año 1913. Como compositor es autor de zortzikos, valses, contradanzas y habaneras escritas para conjunto de txistus.
Fallece en Legutiano el año 1919.

# GONZALEZ, Iker

GONZALEZ, Iker

Euskal Herriko Unibertsitatetik Kimikan doktorea. Bere musika lanak abesbatzen munduarekin lotuta daude bereziki, abeslari zein musikagile giza. Bere estiloan tradizioa eta gaur egungo euskal musikagileen ideia berriak uztartzen dira. Bere lanen estreinaldiak Zumaiako San Pedro Abesbatzaren eta Errenteriako Landarbaso Abesbatzaren esku egon dira oro har, honen adibide delarik Karuizawako Nazioarteko Jaialdian (2017) estreinaturiko *Mendeen ahotsak* obra. 2016an *Ama Lur* obraren orkestrarako bertsioa estreinatu zen Fernando Velázquezen zuzendaritzapean. 2017an berriz, Javier Bustok zuzentzen duen Aqua Lauda abesbatzak *Maitia udazkeneko fruitu berria* obra estreinatu zuen. Obra hau 2019an ospatuko den 51. Tolosako Abesbatza Lehiaketan derrigorrezko obra izango da. Horrez gain, aurten Oñati Ganbara Abesbatzak *Stabat Mater*-a estreinatu du Arantzazun. Lan instrumentalei begiratuta aipamen berezia behar du *Ultreia et Suseia* organorako idatzitako lanak, 2018an Zumaiako Musika Jaialdian estreinatua izan zena.

Doctor en Química por la Universidad del País Vasco. Sus trabajos musicales han estado sobre todo ligados al mundo coral, como coralista y compositor. Su creación musical se mueve entre la tradición y las nuevas ideas musicales de los compositores vascos actuales. Los estrenos de sus obras los han llevado a cabo principalmente San Pedro Abesbatza de Zumaia y Landarbaso Abesbatza de Errenteria, muestra de ello es la obra *Mendeen ahotsa*k, estrenada en el Festival Internacional de Karuizawa (2017). En 2016 se llevó a cabo el estreno de la versión orquestal de *Ama Lur* bajo la dirección de Fernando Velázquez. En 2017, por otro lado, Aqua Lauda Korua bajo la dirección de Javier Busto estrenó *Maitia udazkeneko fruitu berria,* obra escrita para la citada formación. Dicha obra será obligada en la 51 edición del Certamen de Masas Corales de Tolosa que se celebrará el presente 2019. Del mismo modo, el presente 2019 Oñatiko Ganbara Abesbatza ha estrenado su *Stabat Mater en* Arantzazu. Por otro lado, dentro de la composición instrumental cabe destacar la obra *Ultreia et Suseia*, escrita para órgano y estrenada durante el Festival de Música de Zumaia de 2018.

# GOROSARRI, Eduardo

1889 urtean jaio zen Eskoriatzan. Lehen musika ikasketak bere aitarekin egin zituen, gero herriko organista zen Benito Sáez de Viteri, Arrasateko Biktoriano Balerdi organista, eta Balmasedako Martín Rodríguezekin jarraitzeko.
14 urte zituelarik Sopuertaako txistularia eta organista izan zen. 1906 Salamankako Apezgaitegiko organista eta kantu gregorianoko irakaslea izan zen, eta ondoren Gasteizko Apezgaitegiko orfeoiaren zuzendaria. 1917an Ondarroako organista izan zen eta urte berean Begoñako organista izateko lehiaketa irabazi zuen. Organuko ikasketak Jesús Guridirekin hobetu zituen.
Bizkaiko Kotserbatorioko Musikaren Estetika eta Historiako Katedraduna izan zen. Euskal Herriko Txistulari Elkarteko lehen Lehendakaria izan zen.
Espainiako guda zibila zela eta 1937an Inglaterrarantz untziratu zen 4.000 haurren arduradun gisa. Ondoren Belgikara abiatu zen eta han Floor Peters, Meulemans eta Van Nuffelekin ikasi zuen.
1940an itzuli zen bere jaioterrira. 1945an Madrilera joan zen organista lanetan aritu zelarik, baino handik urtebetera itzuli zen, 1947 urtean hil zelarik.
30 erlijioso obra inguru idatzi zituen, bai eta korurako, eta txisturako obrak ere.

Nació en 1889 en Escoriaza, Gipuzkoa. Recibió las lecciones de música primero de su padre y posteriormente de Benito Sáez de Viteri, organista de Escoriaza, de Victoriano Balerdi, organista de Mondragón y de Martín Rodríguez, organista en Valmaseda.
A los 14 años fue organista y txistulari de Sopuerta (Bizkaia). En 1906 pasó al Seminario de Salamanca, donde fue organista y profesor de gregoriano. Más tarde fue director del Orfeón del Seminario de Vitoria. En 1917 pasa a ser organista de Ondárroa y el mismo año gana por oposición la organistía de Begoña. Perfeccionó en órgano con Jesús Guridi.
Fue catedrático de Estética e Historia de la Música en el Conservatorio Vizcaino de Música. Fue el Primer Presidente de la Asociación de Txistularis del País Vasco, que se fundó en 1927.
Con motivo de la guerra civil española se embarcó en 1937 como preceptor de 4.000 niños, rumbo a Inglaterra. Se trasladó después a Bélgica, donde amplió estudios musicales con Floor Peters, Meulemans y Van Nuffel.
De regreso en 1940 se retiró a su pueblo natal. En 1945 se trasladó a Madrid, ejerciendo de organista, pero regresó al año siguiente falleciendo en 1947.
Escribió una treintena de obras religiosas así como música de órgano, para txistu y para coro.

## GUELBENZU, Juan Mª

GUELBENZU, Juan Mª

Iruñean jaio zen 1819an. Musika ikasketak Iruñean hasi zituen eta pianista bezala Parisen ikasten jarraitu zuen. 1841ean María Cristina erreginaren piano irakasle izendatu zuten. Gortean zegoelarik Kapera Errealeko bigarren organista plaza irabazi zuen oposizioz, 1844an karguaz jabetuz. 1855ean Pedro Albéniz lehen organista ordezkatu zuen, eta 1879an karguaren zina egin zuen berriro, lehen organista eta Francisco de Asís María de Borbón erregearen irakasle bezala.

Gorte errealean egindako eginkizunez gain, zarzuela eta opera nazionalen alde egindako lanagatik nabarmendu zen. El Orfeo Español elkarteko kide eta fundatzailea izan zen, eta nabarmentzekoa da Sociedad de Cuartetos elkartean parte hartu izana, izan ere elkarte hau ganbera musikaren garapenerako funtsezkoa izan baitzen. Bere garaiko pertsona ospetsuenekin kontzertuak eman zituen, esate baterako, Liszt-ekin edo Glinka-rekin.

Konpositore bezala erromantizismo garaian nagusi ziren generoetan obrak idatzi zituen, hitzik gabeko erromantzak edo nokturnoak, adibidez. Garaiko modako erritmoak ez zituen ahaztu, mazurkak, habanerak edo zortzikoak, besteak beste.

Madrilen zendu zen 1886an.

Nace en Pamplona en 1819. Inicia los estudios musicales en Pamplona para ampliarlos como pianista en París. En 1841 fue nombrado profesor de piano de la reina María Cristina. Establecido en la corte, ganó por oposición la plaza de organista segundo de la Real Capilla, tomando posesión el año 1844. En 1855 sustituyó como primer organista a Pedro Albéniz, volviendo a jurar su puesto en 1879 como primer organista y profesor del rey Francisco de Asís María de Borbón.

Además de su labor en la real corte, se destacó por el apoyo a la zarzuela y la ópera nacional. Fue miembro y fundador de sociedades como El Orfeo Español, y sobre todo de la Sociedad de Cuartetos, entidad especialmente importante para el desarrollo de la música de cámara. Participó en conciertos con las personalidades más destacadas del momento, como Liszt o Glinka.

Como compositor es autor de obras en los géneros más expresivos del romanticismo, como las romanzas sin palabras o los nocturnos, sin excluir los ritmos de moda como la mazurka, la habanera o el zortziko.

Fallece en Madrid el año 1886.

## GUERRERO, Junkal

GUERRERO, Junkal

Andoainen jaio zen 1968an. Donostiako Kontserbatorioan Solfeo, Piano, Klabe, Musikaren Pedagogia eta Koru Zuzendaritza ikasketak egin zituen. 1995etik 2007ra Javier Bustoren zuzendaritzapean KCK-ko kide izateak eragin handia izan zuen formazioko nahiz koruko ibilbidean. Gaur egun, Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorio Profesionalean pianoko irakasle da, eta zeregin hori zuzendaritza eta korurako konposizio lanekin uztartzen du. 2008tik Luberri Abesbatzako zuzendaria da, eta 2012tik Loinatz Abesbatzakoa. Berak sortutako *Bi bihotz lana*, 2007ko Tolosako Haur Abesbatzen Lehiaketan derrigorrezkoa izan zen, eta *Kalera gazteak* 2011koan. Kantika Korala, Landarbaso Abesbatza, Ganbara Txiki Abesbatza eta Unanue Kamara Koralerako obrak sortu ditu enkarguz. Bere obrak www.cm-ediciones.com webgunean argitaratzen ditu

Nacida en Andoain, Gipuzkoa, en 1968. Es titulada superior en solfeo, piano, clave, pedagogía musical y dirección de coros por el Conservatorio Superior de San Sebastián. La experiencia vivida desde 1995 a 2007 como componente de KCK bajo la dirección de Javier Busto ha dejado una huella imborrable en su formación y trayectoria coral. Actualmente compagina su labor docente como profesora de piano en el Conservatorio Profesional Francisco Escudero con la dirección y composición coral. Es directora de Luberri Abesbatza desde 2008 y de Loinatz Abesbatza desde el 2012. Su obra *Bi bihotz* fue obra obligada del Certamen Coral Infantil de Tolosa 2007 y *Kalera gazteak* del de 2011. Ha escrito por encargo para Kantika Korala, Landarbaso Abesbatza, Ganbara Txiki Abesbatza, Unanue Kamara Korala… Sus obras son editadas en www.cm-ediciones.com..

GWYNN, Alejandro

## GWYNN, Alejandro

Alejandro Gwynn Peña Madrilen jaio zen 1995ean. Musika ikasketak Federico Moreno Torroba Kontserbatorioan hasi zituen, pianoa tresna nagusitzat hartuta. Gradu profesionala amaitzerakoan *Gradu Amaierako* Saria irabazi zuen. Urte hartan, Piano-Interpretazio espezialitatea hasi zuen Musikenen eta bi urte beranduago Konposizioarekin uztartu zuen. Urte hauetan Gabriel Erkoreka, Ramon Lazkano, Zuriñe F. Gerenabarrena eta Stefano Scarani izan ditu irakasle konposizioaren atalean, eta Marta Zabaleta eta Gustavo Díaz-Jerez pianoan. Egun (2019) konposizioaren azken ikasturtea ikasten du.

Alejandro Gwynn Peña nace en 1995 en Madrid. Comenzó sus estudios musicales en el Conservatorio Federico Moreno Torroba con el piano como instrumento principal. Acabó el grado profesional consiguiendo el *Premio de Fin de Grado*. El mismo año comenzó la especialidad de Interpretación-Piano en Musikene y dos años más tarde la compaginaría con la de Composición. Durante estos años ha recibido clases de Gabriel Erkoreka, Ramon Lazkano, Zuriñe F. Gerenabarrena y Stefano Scarani en el apartado compositivo y de Marta Zabaleta y Gustavo Díaz-Jerez en el pianístico. Actualmente (2019) se encuentra terminando el último curso de Composición.

HAKIM, Naji

## HAKIM, Naji

Naji Subhy Paul Irénée Hakim Beiruten jaio zen 1955ean. Organoa Jean Langlaisekin eta zuzendaritza Evelyne Aïellorekin ikasi zituen eta Pariseko Goi Mailako Musika Kontserbatorio Nazionalean honako irakasleak izan zituen, besteak beste: R. Boutry (harmonia), J-Cl. Henry (kontrapuntua), M. Bitsch (fuga), R. Falcinelli (organoa), J. Castérède (analisia) eta S. Nigg (orkestrazioa). 7 lehen sari lortu zituen. Londreseko Trinity College of Music-en lortu zuen organo irakasle titulua, eta beste hainbat sariren artean hamar lehen sari irabazi zituen nazioarteko organo eta konposizio lehiaketetan. 1985etik 1993ra Pariseko Sacré-Coeur Basilikako organista izan zen, Trinitéan organista plaza lortu zuen arte; Olivier Messiaen ordezkatu zuen orduan eta bertan egon zen 1993tik 2008ra. Gaur egun Boulogne-Billancourt-eko Kontserbatorioko musika analisiko irakaslea da.

Musikagile ibilbide oparoa izan du: ganberako musika, musika sinfonikoa (*Les Noces de l'Agneau, Hymne de l'Univers, Ouverture Libanaise, Påskeblomst, Augsburger Symphonie*), organorako bost kontzertu eta ahots musika ere idatzi baititu (*Saul de Tarse* oratorioa*, Phèdre* kantata*, Magnificat* eta lau meza).

Naji Subhy Paul Irénée Hakim nace en Beirut en 1955. Ha estudiado con Jean Langlais (órgano), Evelyne Aïello (dirección) así como en el Conservatorio Nacional Superior de Música de París, en las clases de R. Boutry (armonía), J-Cl. Henry (contrapunto), M. Bitsch (fuga), R. Falcinelli (órgano), J. Castérède (análisis) y S. Nigg (orquestación), siendo galardonado con siete primeros premios. Tiene el título de profesor de órgano por el Trinity College of Music de Londres, habiendo ganado diez primeros premios en concursos internacionales de órgano y composición, además de importantes distinciones. Ha sido organista de la Basílica del Sacré-Coeur de París desde 1985 hasta 1993, en el que logra la plaza de organista de la Trinité, sucediendo a Olivier Messiaen, desde 1993 hasta 2008. Es profesor de análisis musical en el Conservatorio de Boulogne-Billancourt.

Como compositor es autor de música de cámara, música sinfónica (*Les Noces de l'Agneau, Hymne de l'Univers, Ouverture Libanaise, Påskeblomst, Augsburger Symphonie*), cinco conciertos para órgano así como música vocal (oratorio *Saul de Tarse,* cantata *Phèdre, Magnificat* o cuatro misas).

ITURREGUI, Mikel

## ITURREGUI, Mikel

Mikel Iturregui Icaran Sopelan (Bizkaia) jaio zen 1997an. Pianoko gradu profesionala 2015ean bukatu zuen Leioako udal kontserbatorioan; lehen konposizio klaseak ere bertan jaso zituen Margarita Lorenzo de Reizábalen eskutik. Urte hartan Musikenen sartu zen, eta egun arte (2019), konposizio gradua egiten dihardu  Gabriel Erkoreka, Ramón Lazkano, Zuriñe Fdez. Gerenabarrena eta Stefano Scarani irakasleekin. Beste batzuen artean, Helmut Lachenmann, Mauricio Sotelo, Javier Torres Maldonado, José Manuel López López, Alberto Posadas, Peter Eötvos, Francesco Filidei eta Elena Mendozaren konposizio-masterclass-ak jaso ditu. 2016an Musikeneko Orkestran parte hartu zuen, Arturo Tamayoren zuzendaritzapean, Helmut Lachenmann-en *Schreiben*-en interpretazioan. 2017an eta 2018an SGAE Fundazioak Musikeneko konposizio ikasleei zuzendutako beka jaso zuen. 2018an banda sinfonikorako *Iz* obra idatzi zuen, eta 2019ko urtarrilean Bilboko Udal Bandak estreinatu zuen. Orphenica Lyra taldearen poesia eta musika emaldi askotan parte hartu izan du.

Mikel Iturregui Icaran nace en Sopela (Bizkaia) en 1997. En 2015 completa el Grado Profesional en la especialidad de piano en el Conservatorio Municipal de Leioa, donde recibe también sus primeras clases de composición de la mano de Margarita Lorenzo de Reizábal. Ese mismo año ingresa en Musikene, donde cursa hasta la fecha (2019) el Grado Superior en la especialidad de composición con los profesores Gabriel Erkoreka, Ramon Lazkano, Zuriñe Fdez. Gerenabarrena y Stefano Scarani. Ha recibido además masterclass de composición de Helmut Lachenmann, Mauricio Sotelo, Javier Torres Maldonado, José Manuel López López, Alberto Posadas, Peter Eötvos, Francesco Filidei y Elena Mendoza, entre otros. En 2016 colabora con la Orquesta de Musikene en la interpretación de *Schreiben* de Helmut Lachenmann, bajo la dirección de Arturo Tamayo. En 2017 y 2018 recibe la beca de la Fundación SGAE para alumnos de composición de Musikene. En 2018 escribe la obra *Iz*, para banda sinfónica, que es estrenada en enero de 2019 por la Banda Municipal de Bilbao. Ha colaborado en varias ocasiones en recitales de poesía y música con el grupo “Orphenica Lyra”.

JIMÉNEZ, Juan Andrés

## JIMÉNEZ, Juan Andrés

Juan Andrés Jiménez Traín Corellan (Nafarroa) jaio zen 1973an. Musikagilea, zuzendaria eta musika irakaslea da. Ezkondua dago eta hiru alaba ditu. Musika ibilbideari dagokionean Tutera, Teruel, Zaragoza eta Iruñeko kontserbatorioetan ikasi zuen. Piano eta akordeoiko irakaslea da. Konposizioan, Instrumentazioan eta Musikaren Teorian lizentziaduna da. Bere obretan eragin nabarmena izan zuten Jesús María Munetak, Teresa Catalán-ek eta Pedro de Felipek. 2000ko urrian Cintruénigoko Virgen de la Paz abesbatza zuzentzen hasi zen.

Juan Andrés Jiménez Traín nace en 1973, en Corella, Navarra. Es compositor, director y profesor de música. Está casado y es padre de tres hijas. En cuanto a su trayectoria musical, cursó estudios musicales en los conservatorios de Tudela, Teruel, Zaragoza y Pamplona. Es profesor de piano y acordeón. Está licenciado en Composición, Instrumentación y Teoría de la música. Los profesores que más influyeron en sus obras fueron Jesús María Muneta, Teresa Catalán y Pedro de Felipe. Comenzó a dirigir la coral Virgen de la Paz de Cintruénigo en octubre del año 2000.

## KEELAN, Andrew J. P.

KEELAN, Andrew J. P.

Liverpoolen (Ingalaterra) jaio zen 1980ean. Musika ikasketak pianoarekin eta biolinarekin hasi zituen. Bere parrokiko organoa jotzen zuen. Eskualdeko abesbatza gaztean abestu zuen eta biolina orkestra gaztean jotzen hasi zen, bertako concertino izatera heldu zelarik.

2003an Euskal Herrira abiatu zen eta musika talde ezberdinekin parte hartu zuen abeslari nahiz zuzendari moduan.

Azpimarragarria da konpositore moduan izandako ibilbidea, ahots misto eta zurirako egindako hainbat konposizio eta moldaketekin. 2009an BAEk antolatutako abesbatzetarako konposizio lehiaketan bigarren saria eskuratu zuen, ahots zurietarako obra sakro batekin.

Nace en Liverpool, Inglaterra, en 1980. Empieza sus estudios musicales con el piano y el violín. Desarrolla su labor de intérprete en el órgano en su parroquia. Canta asimismo en el coro juvenil de la comarca y toca el violín en la orquesta juvenil, llegando a ser concertino de la misma.

Tras trasladarse en 2003 definitivamente a Euskal Herria, participa en diferentes agrupaciones musicales tanto como cantante y como director.

Es reseñable su faceta como compositor, en la que ha realizado varias composiciones y arreglos para coros de voces mixtas y blancas. En 2009 recibe el segundo premio del XII Concurso de Composición para Coros BAE por una obra sacra para voces blancas.

## LARRAÑAGA, Fr. José

LARRAÑAGA, Fr. Jose

1728an jaio zen Azkoitian. Seguru asko Arantzazun burutu zituen musika-ikasketak lego kantari bezala. 1746an, 18 urte zituela, musika lan bat konposatu zuen. 1747an Arantzazuko Musika Kaperako buru izan zen kapera maisu lanetan. Ia hirurogei urte eman zituen postu horretan. Musikagile frantziskotar askoren heziketan lan pedagogiko garrantzitsua burutu zuela esan daiteke. Lan handia egin zuen lehiaketa-aztertzaile eta aditu bezala eta baita Euskal Herriko hainbat organoren eraikitze lanetan ere.

Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko lehenetako musikari-kidea izan zen eta J. Ph. Rameau-ren *Code de musique pratique* lanaren laburpena aurkeztu zuen sarrera-lan gisa.

1806an hil zen Arantzazun.

Nagusiki, musika erlijiosoa konposatu zuen bai, liturgikoa, bai gabon kantak eta ariak ere. Teklaturako zazpi musika-lanen egile ere bada. Bere lana Euskal Herrian barrokotik klasizismorako bidearen erakusgarri nagusia da.

Nació en Azkoitia el año 1728. Probablemente recibiera su formación musical como donado cantor en Arantzazu. En 1746, con 18 años de edad, compone ya una obra. En 1747 está como Maestro de capilla al frente de la Capilla musical de Arantzazu. Permanece en el puesto durante casi sesenta años. Podemos presumir que desarrolló una importante función pedagógica en la formación de un buen número de compositores franciscanos.

Desplegó una gran actividad como perito y examinador de oposiciones y construcción de diversos órganos en el País Vasco.

Es uno de los primeros músicos miembros de la R.S.B.A.P., presentando como trabajo de ingreso un resumen sobre el *Code de musique pratique* de J.Ph. Rameau.

Fallece en Arantzazu en 1806.

Compuso principalmente música religiosa, tanto litúrgica como villancicos y arias. Es asimismo autor de siete piezas para teclado. Su obra es el exponente principal del paso del barroco al clasicismo en el País Vasco.

# LAZKANO, Ramon

LAZKANO, Ramon

Donostian jaio zen, 1968an. J. Padrosarekin ikasi zuen pianoa eta konposizioa F. Escuderorekin, Donostiako Kontserbatorioan. Pariseko CNSMn ikasi zuen Alain Bancquartekin eta Gérard Griseyrekin, 1990ean konposizioko lehen saria jaso zuelarik. Montrealen ikasketak sakondu zituen Gilles Tremblayrekin. Pariseko École des Hautes Études en Sciences Socialesen diplomatua da.

Monacoko Prince Pierre saria lortu zuen (1995); Leonard Bernstein (Jerusalen) Konposizio Saria eta Frantziako Arte Ederren Akademiako Georges Bizet Saria. JONDEko egoiliarra, 1999an Stanford-ko unibertsitateak gonbidatu zuen Estrasburgoko Musika Jaialdira. 2011n Ensemble 2m2-ko  konpositore egoiliarra izan zen, eta bere obrari buruzko monografiko elebiduna argitaratu zen.

Erroman izandako bi egonaldietan, konposizioa eta gaur egungo konposizioaren xedeari buruzko hausnarketa egin ahal izan du, testuen arteko eta soinu eta denboraren esperientziari buruzko pentsamenduan sakontzeko, eta hori guztia honako piezatan gauzatu da: *Ilunkor* (EOS-OSE-ren enkargua) eta *Hauskor* (ORCAM-en enkargua). 2001 eta 2011 urteen artean, *Igeltsuen Laborategia* deritzon ganberako piezen bilduman egin du lan, Oteizaren *esperientzien laborategia*-ren kontzeptuan oinarrituz.

Estrasburgoko CNR-n Orkestazioa irakatsi du eta konposizioa ESMUC-n. Musikeneko Orkestazioko irakasle da.

Nace en San Sebastián en 1968. Estudió piano con J. Padrosa y composición con F. Escudero en el Conservatorio de San Sebastián. Estudia en el CNSM de París con Alain Bancquart y Gérard Grisey, obteniendo el 1er Premio de Composición en 1990. Amplía estudios en Montreal con Gilles Tremblay. Es diplomado en la École des Hautes Études en Sciences Sociales de París.

Tiene los Premios Prince Pierre de Mónaco (1995); Premio de Composición Leonard Bernstein (Jerusalén) y Premio Georges Bizet, de la Academia de Bellas Artes de Francia (2007). Residente con la JONDE, en 1999 es invitado por la Universidad de Stanford así como por el Festival Musica de Estrasburgo. En 2011 es compositor residente del Ensemble 2e2m, que publica una monografía bilingüe sobre su obra.

Sus dos estancias en Roma le han permitido profundizar en la reflexión sobre la composición y su propósito en nuestros días, ocasionando el nacimiento de piezas emblemáticas como *Ilunkor* (encargo de EOS-OSE) y *Hauskor* (encargo de la ORCAM). Entre 2001 y 2011 ha trabajado en *Igeltsoen Laborategia*, colección de piezas de cámara, que toma como referencia el concepto oteiziano del *"laboratorio experimental".* En 2016 el Festival de Otoño de París le dedica un lugar especial con tres jornadas y la presentación de *Ravel (Scènes)*.

Ha enseñado orquestación en el CNR de Estrasburgo y composición en la ESMUC. Es profesor de orquestación en Musikene - Centro Superior de Música del País Vasco.

## LOMBIDE, Juan Andrés de

LOMBIDE, Juan Andrés de

1745ean jaio zen, Elgetan. Bere formazioari buruzko informaziorik ez dugu. 1765ean Bilboko Santiago parrokiako organo-jotzaile izendapena da berari buruzko lehen informazioa. 1769an apaiztu zen. 1771n Kalagorriko katedraleko kapera maisurako plazarako oposizioak egin ostean, 1778an Oviedoko organo-jotzaile plaza eskuratu zuen. Azkenik, 1786an Madrilgo Encarnación komentuko organo-jotzaile plaza erdietsi zuen. Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko irakasle-bazkide izateko onarpen merezimendu moduan, klabe eta biolinerako sei sonata aurkeztu zituen, zoritxarrez egun galduak. Teklarako hainbat sonataz gain, gordeta dagoen bere obraren gehiengoa erlijiosoa da. Juan Andrés de Lombide 1811ko irailaren 2an hil zen Madrilen.

Nació en Elgeta (Gipuzkoa) en 1745. Se desconocen los datos sobre su formación hasta que en 1765 es nombrado organista de la parroquia de Santiago de Bilbao. En 1769 es ordenado sacerdote. Tras opositar a la plaza de maestro de capilla de la catedral de Calahorra en 1771, se presenta y obtiene la plaza de organista de la catedral de Oviedo en 1778. Finalmente en 1786 accede a la plaza de organista del convento de la Encarnación en Madrid. Personalidad inquieta presenta seis sonatas para clave y violín como mérito para su ingreso como socio profesor en la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, lamentablemente hoy perdidas. La obra que se conserva es principalmente religiosa, además de varias sonatas para tecla. Juan Andrés de Lombide falleció en Madrid el 2 de septiembre de 1811.

## MAZARREDO, Mª Antonia

MAZARREDO, Mª Antonia

1813an, Parisen *Zorzico Chanson et Danse Biscaiene Composée par Mme. Mazarredo* izeneko obra argitaratu zen. Ez dago garbi jakiterik aipatzen den “Mme. Mazarredo” hori nor ote den: Peñafloridako Kondearen beste zortziko batekin batera argitaratu izanak pentsarazten du M. Antonia Moyúa Mazarredo izango dela, Jose Domingo Mazarredorekin ezkonduta zegoenarena.

Aipatutako M. Antonia Moyúa Bergaran jaio zen. 1757an. 1764an, artean haurra zela, *El borracho burlado* operan parte hartu zuen eta 1783an fortepianoa, garai hartan ezartzen hasia zen musika-tresna, jotzen zuela ziurtatzerik badago. Bilbon zuen etxean musika emanaldiak maiz izaten ziren. Zortziko hau da ezagutzen zen konposizio bakarra. Ezagutzen den bere sorkuntzari, berriki BNEK katalogatu duen minuetoa gehitu behar zaio.

En 1813 se edita en *París un Zorzico Chanson et Danse Biscaiene Composée par Mme. Mazarredo*, sin especificar el nombre de la autora. Podría tratarse de Mª Antonia de Moyúa y Mazarredo o de su hija Juana Mazarredo, ambas grandes aficionadas a la música. El hecho de que figure su publicación junto con otro zortziko del Conde de Peñaflorida hace inclinar la autoría hacia Mª Antonia de Moyúa y Mazarredo, casada con José Domingo de Mazarredo. Nace en Bergara en 1757. Mª Antonia participa siendo niña en 1764 en la representación de la ópera *El Borracho burlado* y tenemos constancia de que en 1783 utilizaba el fortepiano, instrumento que comenzaba a imponerse. En su domicilio de Bilbao eran frecuentes las sesiones musicales. Un minueto recientemente catalogado en la BNE se suma a su creación conocida

MENENDÉZ DE ESTEBAN, José

## MENÉNDEZ DE ESTEBAN, José

1910ean Tafallan jaio zen. Lehen musika ezaguerak Gabino Arrarás eta Mariano Milagro organisten eskutik jaso zituen. Bonifacio Iraizozekin harmonia ikasi zuen Iruñean, eta geroago Rogelio Villar eta Conrado del Camporekin Madrilen. 1927tik hil zen arte, Tafallako San Pedro parrokiako organista kargua izan zuen. Agrupación Coral Tafallesaren sortzaile eta zuzendari izan zen. Bere lanaren alde handi bat abesbatza horrentzat izan zen. Jaioterriko ohitura eta jaiei buruzko artikulu eta lan ugari idatzi zituen. Musikagile gisa hainbat sari jaso zituen: Iruñean (1965), Lizarran (1980) eta Cascanten (1981). Bere konposizio lanetan, ahotserako eta kororako batez ere, jota generoak garrantzi handia izan zuen. 1988an zendu zen Tafallan.

Nace en Tafalla en 1910. Recibió sus primeras nociones musicales de los organistas Gabino Arrarás y Mariano Milagro. Estudió armonía en Pamplona con Bonifacio Iraizoz y posteriormente en Madrid con Rogelio Villar y Conrado del Campo. Desempeñó el cargo de organista de la parroquia de San Pedro de Tafalla desde 1927 hasta su muerte. Fue fundador y director de la Agrupación Coral Tafallesa, destinataria de una buena parte de su obra. Escribió numerosos artículos y trabajos sobre costumbres y fiestas de su localidad natal. Como compositor fue galardonado con varios premios en Pamplona (1965), Estella (1980) y Cascante (1981). En su obra compositiva, principalmente vocal y coral, tiene peso específico el género de la jota. Fallece en Tafalla en 1988.

MERAH, Joël

## MERAH, Joël

1969an jaio zen Baionan. Baiona-Euskal Kostaldeko Musika Eskola Nazionalean hasi zituen musika-ikasketak eta gitarrako, ganbera-musikako, konposizioko, orkestazioko eta azterketako sariak irabazi zituen. Pariseko Kontserbatorioan sakondu zituen konposizio-ikasketak E. Nunes, L. Cuniot, L. Naon eta Y. Geslinekin.

1995ean Lehenengo Saria irabazi zuen Picardien koru eta katedraletako kapera maisuentzat egiten den Europako konposizio lehiaketan, *Antiennes* musika-lanagatik.

Korurako zenbait musika lan egin ditu, eta azpimarratzekoak: Présence taldearentzat sortu dituen *Shally Gardens* kantu ingelesaren gain eginiko bariazioak eta *Maitia nun zira* kantuaren bertsio bat. Ganberako musika, musika elektroakustikoa eta *Macama* operaren egilea ere bada.

Nace en Bayona en 1969. Realiza sus estudios musicales en el Conservatorio Regional Bayonne-Côte Basque, en guitarra, música de cámara, composición y orquestación, ampliándolos en el Conservatorio Superior de París con E. Nunes, G. Grisey, L. Cuniot, L. Naon y Y. Geslinekin.

Ha trabajado como compositor con la Orquesta Filarmónica de Tokyo, la Orchestre Régional Bayonne-Côte Basque, los conjuntos Oiasso Novis, Inji, el Octuor à vent y el bailarín y coreógrafo Opiyo Okach.

Ha interpretado conjuntamente con Bernard Lubat, Beñat Achiary, Dominique Répécaud, Thierry Madiot, Raoul Barbosa, Michel Etchecopar, Saïd Nissia...

Es miembro de la Garazi Philanthropik(e) Orkestra, de Ensemble 0 (zéro), así como de Mobius. Posee el primer premio de composición del Toru Takemitsu Award.

Es profesor de análisis musical en el CRR Maurice Ravel de Bayona.

## OJINAGA, Joaquín

OJINAGA, Joaquín

Bilbon jaio zen 1719an. Musika eta organoa ikasten jaioterrian hasi zen. Gazte zelarik Madrila joan zen organo-ikasketak hobetzera eta bertan José de Nebra izan zuen irakasle. La Encarnacióneko Errege Komentuko organista izan zen, eta 1746 aldera, Errege Kaperako bigarren organista azaltzen da 1749 arte. 1750ean Toledoko Katedraleko organista prebendadun izendatu zuten, baina kargu hori betetzeko apaiz izatea derrigorrezkoa zenez, eta berak ezkontzeko asmoa zuenez, postuari uko egin zion 1754an. Dena den, Toledoko Katedralean bi organista ari zitezkeenez, lehen organista izan zen hil zen arte. Organorako musika idatzi zuen, batez ere; baina ordura arte Espainian egiten zen organorako musika-estiloa tientoan oinarritutakoa zen, eta Ojinagarenak ez zion jarraitzen estilo horri: motiboa garatzea erabiltzen zuen berak konposiziorako baliabide gisa, eta hala, bere obra batzuk (*Fuga airosa*, *Fuga en sol menor*, *Paso de octavo tono* edo *Sonata en Do mayor*, esaterako) arte berri baten eredu bihurtu ziren. Ojinagaren obra osoa José López-Calok jaso eta argitaratu zuen Eusko Ikaskuntzarekin 1989an. Joaquín Ojinaga Toledon hil zen 1789an.

Nace en Bilbao en 1719. Comienza a estudiar música y a tocar el órgano en su villa natal. Siendo aún joven se traslada a Madrid para perfeccionar sus estudios de órgano, recibiendo lecciones del maestro José de Nebra. Ejerce como organista primero del Real Convento de la Encarnación de Madrid y posteriormente, hacia 1746, figura como organista segundo de la Capilla Real hasta 1749. En 1750 es nombrado organista racionero de la Catedral de Toledo, plaza a la que renuncia en 1754 por conllevar la obligación del sacerdocio y Ojinaga tenía intenciones de casarse. No obstante, al contar la Catedral de Toledo con la posibilidad de disponer de dos organistas, continúa como organista de dicha catedral hasta la fecha de su fallecimiento. Como compositor, se centró en la escritura de obras para órgano que suponen una ruptura con el estilo de la composición organística española basada en el tiento. Algunas de sus obras se convertirán en modelo de un arte nuevo debido a la utilización del desarrollo temático como recurso compositivo. *Fuga airosa*, *Fuga en sol menor*, *Paso de octavo tono* o *Sonata en Do mayor* son algunas de estas obras. Su obra completa ha sido recogida y publicada por José López-Calo con Eusko Ikaskuntza en 1989. Joaquín Ojinaga murió en Toledo en 1789.

## OLAIZOLA, Ignacia

OLAIZOLA, Ignacia

Donostian jaio zen 1919an, familia musikazale baten baitan. Bere aita Gabriel Olaizola zen, eta huraxe izan zen bere lehen musika irakaslea. Euzko Abesbatzako eta Eresoinkako sopranoa izan zen, eta bertan abestu zuen bakarlari bezala estreinako aldiz. Gerrate zibilean Frantziako Gironde eskualdean egon zen, 1941ean itzuli zen arte. Mª Teresa Hernándezen ikaslea izan zen eta berarekin ere abestu zuen ahots zurien Maitea Abesbatzan. Donostiako Afizionatuen Konpainia Lirikoan parte hartu zuen 40ko hamarkadan, opera eta zarzuela interpretatuz. Probidentziako Ahizpen ordenan botoak egin zituen, eta Mª Gabriela eliza-izena hartu zuen handik aurrera. Agurainen eta Vitoria-Gasteizen egon zen eta bi lekuetan erlijio ospakizunetan abesteko abesbatzak antolatu eta zuzendu zituen. Abesbatza hauentzat hiru eta lau ahotsetako hogei obra inguru konposatu zituen, eta 2007an argitaratu ziren. Vitoria-Gasteizen bizi da eta uztailean ehun urte egingo ditu.

Nace en San Sebastián en 1919 en el seno de una familia musical, siendo su padre, Gabriel Olaizola, su primer profesor de canto. Forma parte como soprano de las entidades Euzko Abesbatza y Eresoinka, donde se estrenó como solista. Permanece con la familia en la región francesa de la Gironde durante la guerra civil, regresando en 1941. Fue alumna de canto de Mª Teresa Hernández, con quien cantó en el Coro Maitea de voces blancas. Formó parte en los años cuarenta de la Compañía Lírica de aficionados formada en San Sebastián, con la que interpretó ópera y zarzuela.

Profesó los votos en la orden de las Hermanas de la Providencia, optando por el nombre religioso de Mª Gabriela. En sus destinos de Salvatierra y Vitoria fue la responsable de preparar un grupo coral para las celebraciones religiosas. Para estos coros ha compuesto una veintena de obras para tres y cuatro voces que han visto la edición el año 2007. Reside en Vitoria-Gasteiz, y cumplirá en julio cien años.

# OTAOLEA, Xabier

OTAOLEA, Xabier

Bilbon jaio zen 1989an. Piano ikasketa profesionalak Juan Crisóstomo de Arriaga kontserbatorioan egin zituen Ana Aranguren pianistarekin. Garai hartan Konposizioarekin harremanetan jarri zen Hilario Extremiana musikagilearen eskutik. Konposizio ikasketak Musikenen amaitu zituen eta beste batzuen artean honakoak izan zituen irakasle: Gabriel Erkoreka, Ramon Lazkano, Jesús Rueda, Stefano Scarani eta Zuriñe Fernández Gerenabarrena. 2012an *Antzemanezin Nahia* bere obra estreinatu zuen Miguel Ituarte pianistak Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Hainbat film labur egin ditu Bilbon eta Donostian estreinatuak izan direnak. Ikus-entzunezko arteetan buru-belarri sartu da eta musikagile gisa arte ezberdinen fusioan aktiboki dihardu. *Izaerak* eta *Domen* obrak estreinatu zituen BBVA musika garaikideko zikloan, Bilbon. 2016an EOS-k *Agartha* obra estreinatu zuen eta 2019an *Izozmendi* obra. Bilboko txistulariekin aktiboki parte hartu izan zuen "*Txistuak hitz egiten duenean*" ikuskizunean, eta hainbat euskal abesti herrikoiren moldaketak egin izan ditu.

Nace en Bilbao en 1989. Ha realizado los estudios profesionales de piano en el conservatorio Juan Crisóstomo de Arriaga de la mano de la pianista Ana Aranguren. En esa etapa tomó contacto con la composición a través del compositor Hilario Extremiana. Finalizó los estudios de composición en Musikene, donde recibió clases con Gabriel Erkoreka, Ramon Lazkano, Jesús Rueda, Stefano Scarani y Zuriñe Fernández Gerenabarrena, entre otros. En el 2012 fue estrenada su obra *Antzemanezin Nahia* por el pianista Miguel Ituarte en el teatro Victoria Eugenia, Donostia. Ha realizado diversos cortometrajes que han sido estrenados en Bilbao y Donostia, involucrándose activamente con las artes visuales y proyectando su futuro como compositor en esta fusión de artes. Estrenó las obras *Izaerak* y *Dolmen* en el ciclo de música contemporánea BBVA de Bilbao. En 2016 la OSE interpretó y estrenó la obra orquestal *Agartha* y este mismo año 2019 la obra *Izozmendi.* Ha participado activamente con la banda de txistularis de Bilbao mediante el espectáculo *"Txistuak hitz egiten duenean"* y ha efectuado arreglos de músicas populares vascas.

PRECIADO, Dionisio

## PRECIADO, Dionisio

Agurainen jaio zen 1919an solfeoa ikasi zuen Ramón Sagastirekin, bere jaioterriko organista. 1930ean Altsasuko Kaputxinoen Seminarioan sartu zen eta ikasketak Zangotzan jarraitu zituen eta aurrerago Lizarran, Madrilgo frontera joateko deitu zuten arte. Bertan egon zen Gerrate Zibilaren amaiera arte. Ondoren erlijio ikasketekin jarraitu zuen eta 1943an ordenatu zen. Iruñeako San Antonio komentuko eskolaniako organista eta zuzendari karguan bidali zuten. Iruñean zegoela, José Mª Beobiderekin ikasketak sakondu zituen. 1949an Txilera bidali zuten eta bertan hainbat kaputxinoen komentutan musika irakasle eta organista izan zen. 1960an Musika Zientzietan Lizentziatu zen Txileko Unibertsitatean. Musika Ikasketak Oxforden eta Erroman sakondu zituen eta 1975ean Alonso de Tejedari buruz egindako ikerketarekin doktore gradua lortu zuen.

Valentziako Kontserbatorioko irakasle izan zen eta 1976tik aurrera Madrilgo Kontserbatorio Errealekoa. Dozena bat liburu argitaratu zituen hainbat autoreren musika obra aurkeztuz, esate baterako, F. Correa de Arauxo, J. Ferrer, V. Rodríguez, R. Anglés, F. Peñalosa edo J. Anchieta. Artikulu ugari ere argitaratu zituen .

Musikagintzari dagokionean, organorako musika, musika erlijiosoa bai eta koru musika ere idatzi zituen. Donisio Preciado Iruñean hil zen 2007 urtean.

Nace en Salvatierra en 1919. Se inició en el solfeo con Ramón Sagasti, organista de su localidad natal. En 1930 ingresó en el Seminario Capuchino de Alsasua, continuando los estudios primero en Sangüesa y más adelante en Estella, interrumpiéndolos tras ser llamado a filas al frente de Madrid hasta el final de la guerra civil. Continuó los estudios religiosos siendo ordenado sacerdote el año 1943. Fue destinado como organista y director de la escolanía al convento de San Antonio de Pamplona, ciudad en la que amplió estudios musicales con José Mª Beobide. En 1949 fue destinado a Chile, donde se convirtió en profesor de música y organista en varios conventos capuchinos. En 1960 obtuvo el título de Licenciado en Ciencias Musicales por la Universidad de Chile. Amplió estudios musicales en Oxford y en Roma, donde obtuvo en 1975 el grado de doctor con el estudio dedicado a Alonso de Tejeda.

Era profesor en el Conservatorio de Valencia y desde 1976 del Real Conservatorio de Madrid. Publicó una docena de libros de investigación, presentando la obra musical de F. Correa de Arauxo, J. Ferrer, V. Rodríguez, R. Anglés, F. Peñalosa o J. Anchieta, y es autor de numerosos artículos.

Como compositor es autor de música para órgano, música religiosa, así como de música coral a capella.

Dionisio Preciado falleció en Pamplona en el año 2007.

PRECIADO, José

## PRECIADO, José

Liornan, Italia, jaio zen 1806an. Bere musika hastapenei buruzko informazio gutxi dago. Teruel-eko katedraleko organista eta Barbastroko katedraleko (Huesca) kapera maisu izan zen. 1828an Tafallako organista plaza oposizioz irabazi zuen eta bertan egon zen 1835 bitartean. 1839 arte Lizarrako San Juanen organista  gisa egindako etenaldiaren ostean, Tafallako organista eta kapera maisu postura itzuli zen 1859 bitarte. Parrokietako lanak, berriki sortu zen musika eskolan irakaskuntza lanekin uztartu zituen. Aurrerago Olitera joan zen eta 1860tik bertako kapera maisu izan zen.
Musika irakasteko hainbat metodo idatzi zituen: solfeo, biolin, piano eta organokoak, esate baterako.
Berak idatzitako lanak erlijiosoak dira nagusiki. Organorako lanak eta hiru ekitalditako *Atala* opera tragikoa idatzi zituen; baita izaera ludikoa duten ahots eta instrumentuetarako pieza sorta, *Recreo filarmónico* izenburua dutenak. José Preciado Oliten, Nafarroa, zendu zen 1871n.

Nace en Liorna, Italia, hacia el año 1806. Poco se sabe de sus inicios musicales. Fue organista de la catedral de Teruel y maestro de capilla de la catedral de Barbastro en Huesca. En 1828 obtuvo por oposición la plaza de organista en Tafalla permaneciendo en el cargo hasta 1835. Tras un paréntesis (hasta 1839) en el que ejerce de organista en San Juan de Estella, regresa al puesto de organista y maestro de capilla en Tafalla, hasta el año 1859. Compagina su quehacer en las parroquias con el cargo de profesor en la recién creada Escuela de música. Pasó después a la localidad de Olite, donde desde 1860 ejerce como maestro de capilla.
Es autor de diversos métodos de enseñanza musical, tanto de solfeo como para diversos instrumentos como el violín, el piano y el órgano.
Como compositor su obra es principalmente vocal religiosa, pero también tiene obras para órgano así como la ópera trágica en tres actos *Atala* o una serie de piezas vocales e instrumentales de carácter lúdico titulada *Recreo filarmónico*.
Fallece José Preciado en Olite, Navarra, el año 1871.

RAVEL, Maurice

## RAVEL, Maurice

Euskal musikarekiko tradizio luzea zuen familia baten baitan Ziburun (Lapurdi) jaio zen, 1875ko martxoaren 7an. Ikasketa musikalak Parisko Kontserbatorioan egin zituen De Beriot, Anthiome eta Gabriel Faurérekin. 21 urte zituenetik bere lanen originaltasunagatik ezagutua izan zen, eztabaidatua askotan. 1901ean Erromako bigarren saria lortu zuen *Myrrha* lanarekin. Garai hartako lanek haren sortze inpresionistaren adierazgarri dira, hegoaldeko ñabardura distiratsuz beteak eta tipikotasunetik at, kolore zaleak. Euskal obra bat idazten saiatu zen - *Zazpiak bat* – baina garatu gabe utzi zuen. *Boléro*, piano eta orkestrarako bi Kontzertuak, *La Valse, L'enfant et les sortilèges, Daphnis et Chloé*, lan ospetsuak egin ostean, paralisi progresiboa deklaratu zitzaion. Parisen hil zen 1937ko abenduaren 28an.

Nació en Ciboure (Labourd) el 7 de marzo de 1875. Hizo sus estudios musicales en el Conservatorio de París con De Beriot,  Anthiome y Gabriel Fauré. Desde sus 21 años fue conocido por la originalidad de sus composiciones, muchas veces controvertidas. En 1901 consiguió el segundo premio de Roma con *Myrrha*. Las obras de esta época muestran su concepción impresionista, los matices brillantes del sur y la preocupación colorista sin concesiones al tipismo. Intentó escribir una obra de carácter vasco — *Zazpiak bat* – pero la abandonó sin su desarrollo.
Tras haber producido obras tan famosas como el *Boléro*, los dos Conciertos para piano y orquesta, *La Valse, L'enfant et les sortilèges, Daphnis et Chloé*, etc., se le declaró una penosa parálisis progresiva. Falleció en París el 28 de diciembre de 1937.

# SANTIAGO, Rodrigo A.

SANTIAGO, Rodrigo A.

Barakaldon (Bizkaia) jaio zen, 1907an. Musika ikasketak Bilboko Kontserbatorioan egin zituen, eta Rafael Navarro (biolina), Jesús Guridi (harmonia), José Sáinz Basabe (konposizioa) eta Armand Marsick (orkestrazioa eta zuzendaritza) izan zituen irakasle. Hamasei urte zituela, Bilboko Udal Orkestran biolinista plaza atera zuen. Herri hauetako banda zuzendari plazak ere atera zituen: Mungia (Bizkaia, 1931-1936), Valencia de Don Juan (Leon, 1940-1947), A Coruña (1947-1967) eta Madril (1967-1977). Galizian eman zuen garai oparoan zuzendari izan zen A Coruñako Udal Orkestran eta El Eco Koru Polifonikoan. Irakaslana A Coruñako Musika eta Deklamazio Kontserbatorioan burutu zuen, harmonia eta konposizioko zuzendariorde eta katedratiko gisa.

Musika idazki ugari idatzi zituen, maiz polemikoak, musika galegoaren zein euskal musikaren inguruan, batez ere zortzikoa gai hartuta.

Bere kreazio lanak genero ugari hartzen ditu: bi zarzuela eta lau ballet, hiru sinfonia, lau kontzertu eta hainbat obra sinfoniko-koral, horien artean *Requiem* bat. Banda, talde instrumental eta korurako sortutako hainbat lanen egile ere bada.

A Coruñan hil zen, 1985ean.

Nace en Barakaldo (Bizkaia) en 1907. Cursó estudios musicales en el Conservatorio de Bilbao con Rafael Navarro (violín), Jesús Guridi (armonía), José Sáinz Basabe (composición) y Armand Marsick (orquestación y dirección). A los dieciséis años obtuvo la plaza de violinista en la Orquesta Municipal de Bilbao. Fue director de las bandas de Mungia (Bizkaia) (1931-1936), Valencia de Don Juan (León) (1940-1947), A Coruña (1947-1967) y Madrid (1967-1977). En su fructífera época gallega de veinte años fue igualmente director de la Orquesta Municipal de A Coruña y de la Coral Polifónica El Eco. Desarrolló su labor docente en el Conservatorio Coruñés de Música y Declamación como subdirector y catedrático de armonía y composición.

Dejó numerosos escritos musicales, tanto sobre música gallega como sobre música vasca. Su labor creativa abarca dos zarzuelas, cuatro ballets, tres sinfonías y cuatro conciertos así como diversas obras sinfónico-corales, entre ellas un *Réquiem*.

Es autor asimismo de obras para banda, para diversos conjuntos instrumentales y para coro.

Fallece Rodrigo de Santiago en A Coruña en 1985.

SARASATE, Pablo

## SARASATE, Pablo

Pablo Martín Sarasate Navascués Iruñan jaio zen 1844ean. Aita musikari militarra zuen eta harekin solfeoa ikasi ondoren, Santiago de Compostela eta A Coruñan hasi zen biolina ikasten. Debuta 8 urterekin egin zuen. Lortutako arrakastaren ondorioz ikasketak jarraitzeko dirua lortu zuen. Madrila joan zen Manuel Rodríguezekin ikasketak burutzeko eta gero Pariseko Kontserbatorioan Delphin Alard maisuarekin jarraitu zuen. Bertan 1857an biolineko lehen saria lortu zuen. Parisen ezaguna egiten hasi zen eta Europa mailan lehenengo girak egiten hasi zen, 1867an Ameriketara iritsita. Handik aurrera Europa eta Ameriketan zehar ibili zen, urtean 200 kontzertu inguru emanez. Pianista, bakarlari, orkestra eta ganbara musikako talde garrantzitsuekin jo zuen eta kritika bikainak, sariak eta ohore-domina ugari jaso zituen. Espainian, Zabalza, Guelbenzu, Urrutia edo Tragorekin elkarlanean aritu zen. 1883an Madrilgo Kontserbatorioan ohorezko irakasle izendatu zuten, nahiz eta irakaskuntzan ez zen inoiz jardun. Bere jaioterriarekiko lotura berezia izan zuen eta ospe handia lortu zuen Iruñako herritarren artean.

Biolinaren historian izan den jenioetako bat izan da eta lehen biolinista modernoa kontsideratzen zaio. Biolinarentzat zegoen errepertorioa berritu zuen eta garaiko musikagileak ziren Raff, Saint Säens, Bruch edo Lalo-k beretzat obrak idatzi zituzten.

Musikagintzari dagokionez, arlo hau oso lotuta agertzen da biolinista jarduerari. Biolin eta orkestra, biolin eta pianoa eta biolin bakarlarirako obrak idatzi zituen. Fantasia operistikoak, saloirako obrak, transkripzioak eta abarrez gain, espainiar eta euskal musikan oinarrituriko obrak bereiz ditzakegu. Honakoak aipa ditzakegu: *Aires españoles, Romanza andaluza, Zapateado, Capricho vasco, Jota de Navarra, Zortziko de Iparraguirre*, eta abar.

Pablo Sarasate Iruñan hil zen 1908an, 64 urte zituela.

Pablo Martín Sarasate Navascués nace en Pamplona en 1844. Aprende solfeo con su padre, músico mayor militar, comenzando los estudios de violín en Santiago de Compostela y A Coruña, donde realiza su debut a los 8 años. Tras el éxito obtenido consigue financiación para continuar su formación. Se traslada a Madrid para estudiar con Manuel Rodríguez y más tarde ingresa en el Conservatorio de París, donde estudia con el maestro Delphin Alard y obtiene el primer premio de violín en 1857. Comienza a hacerse conocido y realiza las primeras giras europeas, llegando a América en 1867. A partir de entonces muestra su virtuosismo recorriendo innumerables ciudades de Europa y América, con una media de 200 conciertos anuales. Toca con destacados pianistas, solistas, orquestas y agrupaciones de cámara, recibiendo excelentes críticas, premios y condecoraciones. En España colabora con Zabalza, Guelbenzu, Urrutia y Tragó, entre otros. En 1883 el Conservatorio de Madrid le nombra profesor honorario, aunque nunca ejerció la docencia. Estuvo muy ligado a Pamplona, donde llegó a ser muy popular.

Está considerado como uno de los grandes genios de la historia del violín y el primer violinista moderno. Renovó el repertorio violinístico, y compositores como Raff, Saint-Säens, Bruch y Lalo compusieron obras para él.

Su faceta de compositor está totalmente ligada a su actividad como violinista. Compuso obras para violín y orquesta, para violín y piano, y para violín solo. Además de las fantasías operísticas, obras de salón, transcripciones etc., destacan las obras inspiradas en la música popular española y vasca, como sus jotas, habaneras y zortzikos. Citemos algunas de sus obras: *Aires españoles, Romanza andaluza, Zapateado, Capricho vasco, Jota de Navarra, Zortziko de Iparraguirre*, etc.

Pablo Sarasate falleció en Pamplona en 1908, a los 64 años de edad.

## SARASOLA, Xabier

SARASOLA, Xabier

Biolin eta piano tituluduna, Beasaingo Udal Musika Eskolako biolin, harmonia, kantu koral eta harizko orkestrako irakasle da. Gipuzkoako Abesbatzen Elkarteak antolatutako ikastaroak egin ostean, J. Busto, E. Ericson, A. Eby, C. Hogset, eta G. Graden maisuen Zuzendaritzako ikastaroetan parte hartu izan du. Loinaz abesbatzako zuzendari eta Donostiako Orfeoiko eta KEA ahots taldeko abeslari izan da.

Koruen zuzendaritzako ikastaroak eta tailerrak antolatzen ditu, eta hainbat lehiaketatako epaimahaietan parte hartu izan du: *Europako Kantu Koraleko Sari Nagusia* (Gorizzia, 2004), *Arezzo* (2007) eta *Varna* (2010). Tolosako Abesbatzen Lehiaketako epaimahaiko presidente izan zen.

Bere obrak derrigorrezkoak izan dira Tolosako Abesbatzen Lehiaketan, eta CM-Ediciones Musicales argitaletxeak editatu ditu. Berak egindako ahots zurien korurako musika, Vocalia taldeak Basilio Astúlezen zuzendaritzapean grabatutako disko monografikoan jasota dago, pianoan autorea bera dagoela.

Titulado en violín y piano, ejerce como profesor de violín, armonía, canto coral y director de la orquesta de cuerda en la Escuela Municipal de Música de Beasain. Tras estudiar los cursos organizados por la Federación de Coros de Gipuzkoa, asiste a cursos de dirección coral con J. Busto, E. Ericson, A. Eby, C. Hogset, o G. Graden.

Ha sido director del coro Loinatz (1986-2012), cantor del Orfeón Donostiarra y del grupo vocal KEA.

Es profesor de cursos y talleres de dirección coral y miembro de jurados, como el *Gran Premio Europeo de Canto Coral* (Gorizzia, 2004), *Arezzo* (2007) y *Varna* (2010). Ha sido presidente del jurado en el Certamen de Masas Corales de Tolosa.

Obras suyas han sido obligatorias en el Certamen Coral de Tolosa y están siendo editadas por CM- Ediciones Musicales. Su música para coro de voces blancas ha sido grabada por el coro Vocalia, dirigido por Basilio Astúlez, con el propio autor al piano.

## SENPERENA, Jose Ramon

SENPERENA, Jose Ramon

Donostian jaio zen 1965ean. Bere lehen diskoa *Joserra Senperena* (1999) izan zen, eta haren ondoren *Blues pasadizioak etorri zen* (2002), pop musika piano, kontrabaxu eta bateriaz osatutako hirukotearen eskutik. *Mandarin dotore* (2003) liburu-diskoak piano bakarlari musika eta Tang Dinastiako poesia txinatarra (VIII. Mendekoa) uztartzen ditu. Itzulpenak Rafa Egigurenek egin zituen eta ilustrazioak José Luis Zumetak. *Chillida-Lekutik* (2004) Jose Ignazio Ansorenak txistuarekin eta berak duoan Chillida-Leku museoan grabatutako diskoa da. *Dardaren interpretazioa* (*Interpretación de los temblores*, 2008) Harkaitz Canok izenburu berarekin idatzitako liburu-poesian oinarritzen da. *10 trio piano, biolin eta akordeoirako* (2012), *9 ganbera pieza* (2015) bere azken lan diskografikotan bere ganberarako lanak plazaratzen ditu.

Pop-rock, antzerki edo literaturan lankidetzan aritu izan da musikagile gisa, eta Patxi Zubizarreta, Kirmen Uribe eta Roger Wolfekin lan egin izan du.

Nace en Donostia en 1965. *Joserra Senperena* (1999) fue su primer disco, al que le siguió *Blues pasadizoak* (2002), música pop interpretada por un trío de piano, contrabajo y batería. El libro-disco *Mandarin dotore* (2003) incluye música a piano solo, poesía china de la Dinastía Tang (s. VIII) traducida al euskera por Rafa Egiguren e ilustraciones de José Luis Zumeta. *Chillida-Lekutik* (2004) es un dúo con el txistu de Jose Ignazio Ansorena grabado en el museo Chillida-Leku. *Dardaren interpretazioa* (*Interpretación de los temblores*, 2008) está inspirado en el libro de poesía del mismo nombre del escritor Harkaitz Cano. *10 trio piano, biolin eta akordeoirako* (2012), *9 ganbera pieza* (2015) son sus últimos trabajos discográficos en los que se refleja sus trabajos camerísticos.

Ha compartido habitualmente su trabajo como compositor con colaboraciones en el ámbito de la música pop-rock, el teatro o la literatura, colaborando con autores como Patxi Zubizarreta, Kirmen Uribe o Roger Wolfe.

## SUÁREZ, Raúl

1996ko urriaren 14an Santiago de Txilen jaio zen. Oboe eta konposizio ikasketak Joaquín Turina kontserbatorioan egin zituen Félix Manuel Pérez, Rafael Eguílaz eta Emilio Navarro irakasleen eskutik. Egun psikologia ikasten du Euskal Herriko Unibertsitatean, eta konposizioa MUSIKENEN, Gabriel Erkoreka, Ramon Lazkano, Stefano Scarani eta Zuriñe Fdez. Gerenabarrena irakasleekin; Dimitri Kourliandski, Francesco Filidei, Helmut Lachenmann, Mauricio Sotelo, Peter Eötvös, Stefan Prins eta Voro García musikagileen mintegietan parte hartu izan du.

Nace el 14 de octubre de 1996 en Santiago de Chile. Realiza sus estudios de oboe y composición en el Conservatorio Joaquín Turina de Madrid de la mano de sus profesores Félix Manuel Pérez, Rafael Eguílaz y Emilio Navarro. Actualmente estudia psicología en la Universidad del País Vasco y composición en Musikene, donde recibe clases de Gabriel Erkoreka, Ramon Lazkano, Stefano Scarani y Zuriñe Fdez. Gerenabarrena; además ha participado en talleres con los compositores Dimitri Kourliandski, Francesco Filidei, Helmut Lachenmann, Mauricio Sotelo, Peter Eötvös, Stefan Prins y Voro García.

## TURRILLAS, Manuel

1905ean jaio zen Barasoainen (Iruñea). Bederatzi urte zituela, bertako musika-bandan sartu zen klarinete-jole. 1927an, Iruñera joan zen bizitzera eta “La Pamplonesa” Udal Bandan sartu zen eta klarinete lehenengo plaza eskuratu zuen. 50 urte eman zituen horretan, 1979an jubilatu zen arte. 30eko hamarkadan hasi zuen musikagile ibilbidea eta 300 musika-pieza baino gehiago idatzi zituen gehienak Iruñeko San Ferminekin zerikusia dutenak. Hainbat sari eta esker on jaso zituen eta 1997an hil zen Iruñean.

Nació en Barasoain (Pamplona) en 1905. Ingresa a los nueve años como clarinetista en la banda local de música. En 1927 se instaló en Pamplona, donde ingresa en la Banda Municipal, la “Pamplonesa”, en la que obtendrá la plaza de clarinete primero, permaneciendo en la misma durante cincuenta años, hasta su jubilación en 1979. Se inició como compositor en los años treinta, escribiendo más de trescientos títulos vinculados en gran parte a los “sanfermines” de Pamplona. Recibió varios premios y distinciones, falleciendo en Pamplona en 1997.

## UGALDE, Eva

Donostian jaio zen 1973an. Konposizio eta koru zuzendaritza ikastaroak egin zituen Donostian, Gotzon Aulestia eta Miguel Amantegiren eskutik. Javier Bustok zuzendutako Kanta Cantemus ganbera taldeko kide izan da, eta baita Gabriel Baltések zuzendutako KUP taldekoa ere. Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorioko Musika Lengoaiako eta Koruko irakaslea da. Korurako obrak konposatu ditu batez ere, eta konposizio koraleko hainbat sari ditu.

Nace en San Sebastián en 1973. Cursa estudios de composición y dirección coral en Donostia con Gotzon Aulestia y Miguel Amantegi, respectivamente. Ha formado parte de los grupos de cámara Kanta Cantemus, dirigido por Javier Busto, y KUP, dirigido por Gabriel Baltés. Es profesora de Lenguaje Musical y Coro en el Conservatorio Francisco Escudero de Donostia. Forma parte habitualmente de jurados de concursos y competiciones. Es autora, fundamentalmente de obras corales, estando en posesión de diversos premios de composición coral.

URRUTIA, Isabel

## URRUTIA, Isabel

1967an jaio zen Algortan. Konposizio, piano eta musika pedagogiako ikasketak egin ditu Bilboko Musika Goi Kontserbatorioan. Gero, konposiziokoak sakondu ditu eta orkestra zuzendaritza ikasi du Madrileko Musikako Errege Goi Kontserbatorioan. Francisco Escudero eta Jose Luis Campana maisuekin besteak beste osatu ditu bere ikasketak. 2001ean Berziztu Elkarteak antolatutako konposizio lehiaketan lehenengo saria irabazi zuen txistu eta danbolinerako Gogoan musika-lanarekin. Bere musikari buruzko hitzaldiak ematen ditu EHUn eta konposizioko hainbat "masterclass" Argentinan, Txile eta Alemanian.

Ganbera eta orkestrarako obrak idatzi ditu nagusiki, eta bere lanak Europam Amerika eta Asiako jaialdi garrantzitsuetan estreinatu izan dira. Hainbat sari irabazi izan ditu idatzitako obrekin, adibidez : Gogoan (Berziztu, 2001) edo Haizearen nahiak (Garzyna Bacewicz, Lodz, 2012), MUSIKASTE 2019an interpretatuko dena.

Nace en Algorta, Bizkaia en 1967. Ha realizado estudios de composición, de piano y de pedagogía musical en el Conservatorio de Bilbao. Realizó estudios de composición en el Real Conservatorio de Madrid, ampliando posteriormente su formación con Francisco Escudero y José Luis Campana.

Ha impartido docencia en el Centro de Estudios Musicales "Juan Antxieta" de Bilbao y en el Conservatorio de Bilbao, siendo actualmente profesora de armonía y contrapunto, y técnica de la composición en MUSIKENE. Ha dictado igualmente numerosas conferencias y master-classes sobre su música tanto en universidades vascas como en Alemania, Argentina o Chile.

Es autora principalmente de música de cámara y orquestal, siendo sus obras estrenadas en destacados festivales musicales de Europa, América y Asia. Ha logrado diversos premios con obras como *Gogoan* (Berziztu, 2001), *Gerok* (premio AEOS 2007) o *Haizearen nahiak* (Concurso Grazyna Bacewicz, Lodz, 2012), la obra que se interpretará en MUSIKASTE 2019.

VELÁZQUEZ, Fernando

## VELÁZQUEZ, Fernando

Getxon jaio zen 1976an. Biolontxeloa Getxo, Bilbo eta Gasteizko kontserbatorioetan ikasi zuen, konposizio ikasketak Madrilgo Kontserbatorio Errealean egin zituen, eta Historian lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean. Konposizioaren alorrean 1999tik aurrera zinerako soinu bandetan espezializatu da, eta hainbat sari jaso ditu eta horien artean *Un monstruo viene a verme* filmeko soinu bandagatik irabazitako Goya saria nabarmentzen da. Koldo Serra, Juan Antonio Bayona eta Guillem Morales zuzendariekin lan egin izan du, besteak beste.

Banda sinfonikorako obrak eta ganbera eta sinfoniko-koral musika idatzi du, eta hainbat erakundek enkarguak egin izan dizkiote, esate baterako: Mondragon Korporazioak, Deustuko Unibertsitateak, Bilboko Merkataritza Ganberak edo Bilboko Koru Elkarteak bere 130 urtemugan.

Nace en Getxo, Bizkaia, en 1976. Ha realizado estudios de violonchelo en los conservatorios de Getxo, Bilbao y Gasteiz, de composición en el Real Conservatorio de Madrid, y es licenciado en historia por la Universidad de Deusto. En el ámbito compositivo se ha especializado a partir de 1999 en la realización de bandas sonoras principalmente para el cine, teniendo en su haber premios como el Goya por la banda sonora de la película *Un monstruo viene a verme*. Ha colaborado con directores como Koldo Serra, Juan Antonio Bayona o Guillem Morales. Es autor asimismo de obras para banda sinfónica, música de cámara y sinfónico–coral, recibiendo encargos de Corporación Mondragón o la Universidad de Deusto, Cámara de Comercio de Bilbao y Sociedad Coral de Bilbao en su 130 aniversario.

VÍRSEDA, Paloma

# VÍRSEDA, Paloma

Paloma Vírseda Bravok Segoviako Musika Kontserbatorioan hasi zituen musika ikasketak. Egun (2019), Musikene – Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegiko azken urtea ikasten ari da eta Ramon Lazkano, Gabriel Erkoreka, Fdez. Gerenabarrena eta Stefano Scarani-ren klaseak jasotzen ditu. Rebecca Saunders, Peter Eötvös, Annette Vende Gorne, edo Helmut Lachenmann musikagileen masterclass-ak jaso ditu. Aurten, gainera, SGAEk eskaintzen dituen konposizio bi beketako bat jaso du. Azkenik, 2016an Akusma jaialdian parte hartu zuen *Paisajes extraños* lanarekin, eta *Voci* bere obra, 2018ko Musikeneko elektroakustikako kontzertuan estreinatu zen.

Paloma Vírseda Bravo comenzó sus estudios musicales en el Conservatorio de Música de Segovia; actualmente (2019) cursa el último año de Composición Musical en el Centro Superior de Música del País Vasco, Musikene, donde recibe clase de mano de Ramon Lazkano, Gabriel Erkoreka, Zuriñe Fdez. Gerenabarrena y Stefano Scarani. Ha asistido a clases magistrales de compositores de renombre como Rebecca Saunders, Peter Eötvös, Annette Vande Gorne o Helmut Lachenmann. Además, este año recibió una de las dos becas de composición que ofrece la SGAE. Por último, ha colaborado en festivales como Akusma, donde presentó la obra *Paisajes extraños* en el 2016, además de estrenarse su obra *Voci* en el Concierto de electroacústica 2018 en Musikene.



# 20, 21, 22

maiatza
mayo

astelehena, asteartea, asteazkena
lunes, martes, miércoles
Niessen Kulturgunea

Sugaar Ensemblea lekuko musikoen laguntasunetik sortzen da. Bost kideak musikarekiko maitasunak batzen ditu, batez ere ganbera musikak. Taldearen motorra giro desberdinetan jarduteko gogoa da, estilo eta aukera desberdinak erakutsiaz. Taldearen izenarekin identifikatuta sentitzen dira bost musikariak, izan ere, Euskal mitologian Sugarek sugarra, garra, sua esan nahi du, eta zaintzen ez bada honek itzaltzen bukatzen du.

Sugaar Ensemble surge de la amistad de músicos del entorno. El amor por la música, principalmente la música de cámara, une a los cinco componentes. El interés por participar en distintos ambientes es el motor del grupo, mostrando estilos y ofertas diferentes. Los cinco músicos se sienten identificados con el nombre del grupo, dado que en la mitología vasca Sugar significa llama, fuego, y si no se le cuida, acaba por apagarse.

## SUGAAR ENSEMBLE

Nagore Larrion flauta
Ane Ruiz oboea
Carlos Noain klarinetea
Eider Gaztañaga tronpa
Iñaki Iraola fagota

musika bulegoa
euskal herriko musika bulego elkartea

# ERRENTERIA MUSIKALEKO TALDEEN EMANALDIAK
## ACTUACIONES DE LOS GRUPOS DE ERRENTERIA MUSIKAL




asteazkena, osteguna, ostirala

miércoles, jueves, viernes

Xabier Olaskoaga plaza

**22** maiatza / mayo

**EUSKAL DANTZA IKASLEAK**
17:30

**KLAKE ETA KONBO TALDEAK**
19:00

**23** maiatza / mayo

**ORKESTRA TXIKI ETA BANDA TXIKI**
17:30

**24** maiatza / mayo

**MUSIKA ESKOLAKO BANDA**
18:30

errenteriamusikal

**https:// musikal.errenteria.eus**

ANTOLATZAILEAK ORGANIZAN

Andra Mari Abesbatza

Eresbil

SUSTATZAILEAK PROMUEVEN

Errenteriako Udala

KULTURA kreaktiboa

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputacion Foral de Gipuzkoa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

BABESLEA PATROCINA

kutxa FUNDAZIOA

LABORAL kutxa

musika bulegoa
euskal herriko musika bulego elkartea

LAGUNTZAILEAK COLABORAN

SUPER AMARA

errenteriamusikal

musikene
Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegia
Centro superior de música del País Vasco

Musikagileak